

KOIUNTURAZ

81. zkia.

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	12
Ekoizpen jarduera	13
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	19
Lan merkatua.....	24
Prezioak, kostuak eta soldatak	29
Prezioak	29
Lan kostuak eta soldatak	33
Arlo publikoa.....	35
Finantza arloa	37
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	43
Ingurunerako aurreikuspenak	43
EAErako aurreikuspenak	49

LABURPENA

2012ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak urte arteko jaitsiera erritmoa areagotu zuen eta $\%-1,3$ ko tasa bat jaso zuen, dagoeneko hiru hiruhilekoz jarraian beherakadak bilduz. Aurreko hiruhilekoaren aldean, estimatu den balioak ($\%-0,4$) aurreko emaitza berdindu du eta laugarren datu negatibo jarraitua da. Beheranzko erritmoan leuntze arina hauteman den arren, gogoratu behar da BEZ zergaren tipoak irailetik aurrera igo zirelako iragarpenak hainbat erosketa uztaileira eta abuztura aurreratzea eragin zuela. Beraz, oso litekeena da laugarren hiruhilekoan EAEko ekonomiaren narriadura areagotzea, bereziki kontsumo pribatuarena. Hala ere, konpentsazio txiki bat lortuko da kanpo eskariaren ekarpena apur bat handiagoa izango delako, inportatutako ondasunak, proportzioz, gehiago murriztuko direlako.

EAEko ekonomia. BPGaren bilakaera.



Iturria: Eustat.

Alderaketak eginez, EAEko ekonomiak Europako batez besteara ($\%-0,4$) baino emaitza txarragoa jaso zuen, baina Espainiarena ($\%-1,6$) baino zertxobait hobea. Hala eta guztiz ere, azken urtebetearen bilakaera modu zehatzago batean aztertzen denean, agerian geratzen da EAEko BPGak izan duen moteltzea Europako gainontzeko herrialdeenaren antzekoa izan

dela. Izan ere, erritmo galera EAEn 1,9 puntukoa izan da azken urtebetean (%0,6tik %-1,3ra) eta Europar Batasunean, berriz, 1,8 puntura iritsi da moteltzea. Orobat, Alemaniak ere antzeko neurrian leundu du bere hazkundera (1,8 puntu), baina herrialde horrek ez ditu tasa positiboak galdu azken hiruhilekoetan.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	III
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,4	0,8	0,1	-0,3	-0,4
- EAE	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3
- Espainia	-0,3	0,4	0,6	0,0	-0,7	-1,4	-1,6
- Alemania	4,2	3,0	2,7	1,9	1,2	1,0	0,9
- Frantzia	1,7	1,7	1,5	1,2	0,2	0,1	0,0
- Italia	1,8	0,4	0,4	-0,5	-1,4	-2,4	-2,4
- Erresuma Batua	1,8	0,9	0,7	0,9	0,2	-0,3	0,0
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,4	1,8	1,6	2,0	2,4	2,1	2,6
Japonia	4,7	-0,6	-0,5	0,0	3,3	4,0	0,5
Txina	10,4	9,2	9,7	9,1	8,1	7,6	7,4
India	10,8	7,1	7,5	6,2	5,2	3,9	3,2
Errusia	4,3	4,3	5,3	4,9	4,5	4,2	3,4
Brasil	7,5	2,7	2,3	1,4	0,7	0,4	1,0

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.


Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Beste herrialde garatu batzuk europar ekonomiek bizi duten moteltze horretatik aldendu dira. Hain zuzen ere, AEBek beste urrats bat eman zuten suspertzeko joeran, bertako BPGa %2,6 gehituz urte arteko tasan. Emaita hori azken urteetako baliorik gorena da. Kontsumo pribatuaren hazkunde egonkorra eta inbertsioaren bultzada sendoa daude gorakada berri horren atzean. Japoniak, berriz, ezin izan zituen urteko lehen erdian lortu zituen emaitza bikainak berri eta %0,5 baino ez zen hazi. Bilakaera horien ondorioz, zazpi herrialde garatuaren multzoa %1,4 hazi zen hirugarren hiruhilekoan. Tasa hori nahiko egonkorra da eta bakarrik lehen bi hiruhilekoetan lortu zen emaitza handiago bat, Japonia berriro eraikitze bultzadari esker.

Azaleratzen ari diren herrialdeetan ere hazkunde erritmoa moteldu dela hautematen da, baina gehienek urte arteko aldakuntza tasa garrantzitsuak lortu zituzten oraindik. Esate baterako,

Txinak %7,4ko gehikuntza tasa jaso zuen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren bakarrik gutxiago. Beraz, badirudi apaltzeko joera amaitzen ari dela ekonomia horretan. Erritmo galera biziagoa izan da Indian eta Errusian (%3,2 eta %3,4, hurrenez hurren), nahiz eta ezuste handiena Brasilek eman zuen, aurreikuspenek bestela iragarri zuten arren, hirugarren hiruhilekoan ezin izan zuelako %1,0 gainditu.


Munduko ekonomia. BPGaren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera.
Urte arteko aldakuntza tasa eta indizea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostat, ELGE, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakundearen datuak erabilia.

Oro har, munduko ekonomiak berriro jaso zuen aurreko hiruhilekoko baina gehikuntza tasa txikiago bat eta horrek eragina izan zuen nazioarteko merkataritzaren bilakaeran, termino nominaletan eta dolarretan neurtuta %4,2 egin zuelako behera. Hala eta guztiz ere, termino errealetan aurrerapen txiki bat lortu zen (%1,4), nahiz eta aurreko epealdietakoa baino askoz apalagoa izan zen. Hala balio nominaletan nola errealetan, Europako salmenten bilakaera munduko batez bestea baino okerragoa izan zen. Dena dela, bizitasunaren galera hori Europar Batasunean bertan gertatu da, eremu horretatik kanpo egin diren salmentek bilakaera ona izan zutelako, bereziki bolumenean (%4,9). Europako diruaren balio galera eta merkatu berriak bilatzeko beharra dira kanpoko bultzada horren arrazoi batzuk.

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Moteltzeko testuinguru nahiko orokor horretan, EAEko ekonomiak %1,3 gutxitu zuen bere barne produktu gordina urte arteko tasan, aurreko hiruhilabeteko narriadura erritmoari lau hamarren gehituz. Osagai handien arabera, barne eskariak hamarren batzutan murriztu zuen jaitziera, bere tasa %-2,1ean kokatu arte. Hobekuntza txiki hori kontsumo pribatua gutxiago jaitsi zelako gertatu zen, BEZak irailean izango zuen igoera saihesteko erosketa batzuk aurreratu zirelako. Orobat, kapital eraketa gordinaren beherakada leundu izanak ere lagundu zuen, nahiz eta osagai horrek oraindik bilakaera negatiboena erakusten duen. Administrazio publikoetako kontsumoak, berriz, uzkurdua erritmoa areagotu zuen %-3,0 jaso arte, arlo publikoan ezartzen ari diren langileak eta funtzionamenduko gastuak murrizteko politiken ondorioz.

BPGaren gehikuntzari egin zion ekarpen positibo bakarra kanpo arlotik etorri zen berriro, esportazioek hirugarren hiruhilekoan atzerakada garrantzitsua pairatu zuten arren. Hain zuzen ere, Eustaten estimazioak %-7,7an kokatzen du kanpora (atzerria eta Estatuko gainontzeko erkidegoetara) bidalitako esportazio nominalen urte arteko tasa. Halaber, estatistika erakundeak, Aduanetako datuak erabilia, %-9,7an kokatu du atzerrian saldutako ondasunen salmenta nominala. Dena dela, ekarpen positiboa inportazioen beherakada biziaren eskutik iritsi zen, kanpo saldoa aurreko urtekoa bezain negatiboa ez izatea ahalbidetu duelako.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3
Enplegua	-0,9	-0,6	-0,7	-1,3	-1,7	-2,3	-2,7
Ekoizkortasun irabaziak	1,2	1,2	1,3	1,5	1,4	1,4	1,4
Langabezia tasa	9,2	10,8	10,6	11,2	12,1	11,9	11,8
Kontsumoko prezioen indizea	1,7	3,1	2,9	2,7	2,0	1,9	2,5

Iturria: Eustat eta INE.

Eskaintzaren ikuspegitik, nekazaritzaz bestelako arlo guztiek beren balio erantsia gutxitu zuten aurreko urteko epealdi beraren aldean. Bereziki azpimarragarria da zerbitzuetako jaitsiera tasa (%-0,5), 2009ko amaieratik jaso duen lehena delako. Hala merkatuko zerbitzuek nola besteez tasa negatiboak izan zituzten, baina azken hauetako jaitsiera handiagoa izan zen (%-1,5). Beherakada hori 1995. urtetik, une horretan hasi baitzen serie historikoa, gertatu den bigarrenak da eta alde handiz gaintu du 2011ko laugarren hiruhilekoan izan zuena (%-0,3). Horrek agerian uzten du arlo publikoan oso doikuntza gogorak egiten ari direla.

Eraikuntzak oso nabarmen murriztu zuen bere jarduera berriro (%-5,7), baina puntu erdi batean gutxitu zuen jaitsiera aurreko emaitzaren aldean. Industria, berriz, %2,7 jaitsi zen, aurreko tasetatik oso hurbil. Badirudi sektoreak hondoa jo duela oso maila negatibo batean, baina 2009ko narriadurara (%-12,7) iritsi gabe.

Ekoizpenaren jaitsierak eragina utzi zuen enpleguaren galeran, urte arteko tasa %-2,7an kokatu baitzen, azken hamaika hiruhilekoetako okerrera delarik. Beraz, azken urtebetean 26.000 lanpostu galdu dira. Ekoizpenaren eta enpleguaren beherakada horiei lotutako produktibitate

irabaziak %1,4ra iritsi ziren, aurreko balioetatik hurbil. Enpleguaren beherakada garrantzitsu horrek puntu bat baino zertxobait gehiago igoarazi zuen langabezia tasa urtebete bat lehenago zegoenaren aldean. Hala ere, jende askok lan merkatua utzi duenez, langabezia tasa zertxobait jaitsi da aurreko bi hiruhilekoetako emaitzen aldean. Azkenik, BEZaren tipoak igo izanak kontsumoko prezioen gorakada orokorra eragin zuen hirugarren hiruhilekoan, %2,5 arte, eta hurrengo hilekoetan inflazioa are gorago kokatu zen.

Datozen hiruhilekoetan BPGaren hiruhilabetekako bilakaeran aldaketa bat gertatuko dela espero da eta une horretan hasiko da ekonomiaren susperraldia. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren oraingo aurreikuspenak 2012ko laugarren hiruhilekoaren eta 2013ko lehenaren artean kokatzen du oraingo atzeraldiaren punturik baxuena, bi hiruhilekoetan espero den urte arteko tasa %-1,6 delarik. Susperraldia astiro mamituko dela aurreikusten da eta ez da hazkunde positiborik espero 2013ko hiruhilekoetan.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2012RAKO ETA 2013RAKO

	2012		2013				2013
	IV	2012	I	II	III	IV	
BPG erreala	-1,6	-1,1	-1,6	-1,4	-1,0	-0,3	-1,1
BPGren deflatoarea	1,1	1,1	1,2	1,4	1,8	2,1	1,6
Enplegua	-2,9	-2,4	-2,8	-2,2	-1,9	-1,0	-2,0
Langabezia tasa	12,0	12,0	12,3	12,6	12,9	12,9	12,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Susperraldiaren gakoa kanpo arloan egongo da, barne eskariaren osagai guztiek balio negatiboak izango dituztelako aurreikuspen honetan kontuan hartu diren hiruhileko guztietan. Aldagaien beherakadak leunduko diren arren, urteko batez bestean ez da diferentzia handirik espero 2012ko emaitzen aldean. Inbertsioak bakarrik murriztuko du bere jaitsiera nabarmen, %-3,3an kokatu arte. Sektoreka, balio erantsi gordina guztietan gutxituko dela aurreikusten da, baina industriak eta eraikuntzak jaitsierak leunduko dituzte.

BPGaren murrizketa 2013an eta 2012an antzekoa izango den arren, lanpostu gutxiago galduko direla espero da, berriro asko izango badira ere (%-2,0). Hala ere, langabezia tasa %13,0ra hurbilduko da aurtengo bigarren erdian. Azkenik, prezioek gora egingo dutela aurreikusten da, EAEko eta Europako ekonomiak suspertuko diren heinean.


EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


2012. urtean zehar, munduko ekonomiaren hazkundera motelduz joan zen, 2011ko amaieran agertu ziren ahultasunak areagotu zirelako, Eurogunea atzeraldian dagoelako eta garapen bidean dauden ekonomien jarduerak indarra galdu duelako. Eurogunean bizi den krisiak eragin negatiboak izan ditu mundu osoko jardueran eta ekonomia eragileen konfiantzan. Hori horrela izanda, munduko ekonomiaren gehikuntza tasa gutxiago hazi zen 2012ko hirugarren hiruhilekoan eta %2,7aren inguruan kokatu zen.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, Txinak bere hazkunde erritmoa moteldu du azken hiruhilekoetan. Izan ere, herrialde hartako BPGak %7,4ko aldakuntza jaso zuen. Hala eta guztiz ere, egonkortzeko joera hauteman da erritmoan, aurreko balioa baino bi hamarren gutxiago bakarrik hazi delako. Txinako hazkundearen barne eskariaren hobekuntzan oinarritu da, etxegintzan eta azpiegiturretan eginiko inbertsioak gora egin duelako. Inflazioak beheranzko joerari jarraipena eman dio eta abenduan %2,5ean kokatu zen Txinako KPI indizea. Joera hori inportatu ziren oinarritzko produktuen salneurriaren beherakada biziak ahalbidetu zuen, nahiz eta urte amaieran gorakada bat bizi zen. Indiari dagokionez, hazkundearen azken urteetako batez bestea baino txikiagoa izan da. Enpresen inbertsioa eta industriaren ekoizpena ahuldu dira eta politika ekonomikoak ziurgabetasun handiak piztu ditu. Kontsumoak ere bizitasun apalagoa erakutsi du eta egoera horri esportazioen jaitsiera gehitu behar zaio, kanpo merkatuek okerrera egin dutelako. Aurreko guztiaren ondorioz, Indiako BPGaren hazkundearen %3,2 izan zen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Jarduera moteldu bazen ere, prezioak maila altuan daude eta urrian %9,6 igo ziren.

AEBetan, ekonomiaren jarduera %2,6ko erritmoan hazi da uztailetik irailera doan epealdian. Inbertsioak barne eskariaren hazkundearen gidatu du eta kontsumitzaileen konfiantzak nabarmen egin du hobera aurreko urteko mailaren aldean. Kanpo eskariaren ikuspegitik, hala esportazioek nola inportazioek moteltze garrantzitsua nozitu dute. Lan merkatuak protagonismoa bereganatu du berriro, urtearen erdialdeko hilabeteetan galgatzea erakutsi eta gero. Lanpostuak sortzeko orduan azken hilabeteetan lortu den erritmoa %1,5aren apur bat gainetik kokatu da. Tasa hori esanguratsua da eta langabezia tasa hamarren batzuk beheratzea ahalbidetu du. Beste aldetik, inflazioak %2,0aren inguruko mailan jarraitzen du. Hain zuzen ere, azaroan prezioen indize orokorraren aldakuntza tasa %1,8an kokatu zen.

Japoniak moteltze garrantzitsua pairatu zuen hazkunde tasan 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Aldakuntza tasa %0,5ean geratu zen, lehen sei hilekoan lortu zuen batez bestea baino hiru puntu luze beherago. Herrialdea berreraikitzeke neurriek baino eragin gehiago izan dute barne eskariaren ahultasunak eta munduko ekonomiaren egoera geldoak, kanpo merkataritzaren indarra galgatzea ekarri dutelako. Halaber, yenaren sendotasunak ere esportazioen bilakaera kaltetu du. Barne eskariari dagokionez, automobilak erostera zuzendutako diru laguntza publikoak urratsez urrats kendu izanak kontsumo pribatuari kalte egin dio. Beste aldetik, enpresa manufakturagile handien konfiantzak behera egin du. Eskariaren jaitsierak prezioen beherakada ekarri du eta, horren ondorioz, azken hilabeteetan %0,4an egon da KPIaren urte arteko tasa. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasak %4,2an jarraitu zuen iazko hirugarren hiruhilekoan. Balio hori zertxobait gutxitu da azaroan.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2010	2011	2011		2012				
			III	IV	I	II	III	Urria	Azaroa
BPG erreala									
AEB	2,4	1,8	1,6	2,0	2,4	2,1	2,6	---	---
Japonia	4,7	-0,6	-0,5	0,0	3,3	4,0	0,5	---	---
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,4	0,8	0,1	-0,3	-0,4	---	---
- Alemania	4,2	3,0	2,7	1,9	1,2	1,0	0,9	---	---
- Frantzia	1,7	1,7	1,5	1,2	0,2	0,1	0,0	---	---
- Erresuma Batua	1,8	0,9	0,7	0,9	0,2	-0,3	0,0	---	---
Inflazioa									
AEB	2,4	3,3	3,8	3,3	2,8	1,8	1,7	2,2	1,8
Japonia	-0,7	-0,3	0,1	-0,3	0,3	0,2	-0,4	-0,4	-0,2
Europar Batasuna 27	2,1	3,1	3,1	3,2	2,9	2,6	2,6	2,6	2,4
- Alemania	1,2	2,5	2,7	2,7	2,4	2,1	2,1	2,1	1,9
- Frantzia	1,7	2,3	2,3	2,6	2,6	2,3	2,3	2,1	1,6
- Erresuma Batua	3,3	4,5	4,7	4,7	3,5	2,7	2,4	2,7	2,7
Langabezia tasa									
AEB	9,6	8,9	9,1	8,7	8,3	8,2	8,1	7,9	7,7
Japonia	5,1	4,6	4,4	4,5	4,6	4,4	4,2	4,2	4,1
Europar Batasuna 27	9,7	9,7	9,7	10,0	10,2	10,4	10,6	10,7	10,7
- Alemania	7,1	5,9	5,8	5,7	5,6	5,5	5,4	5,4	5,4
- Frantzia	9,8	9,7	9,6	9,8	10,0	10,2	10,3	10,4	10,5
- Erresuma Batua	7,8	8,0	8,3	8,3	8,2	7,9	7,8	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Europar Batasunak %0,4ko narriadura pairatu zuen hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi beraren aldean. Eurogunean, ekoizpena %0,6 jaitsi zen, batez ere politika arduradunek zor subiranoaren krisia kudeatzeko orduan erakutsi duten gaitasunean eta egoera onbideratzeko hartu zituzten neurrietan konfiantza galdu zelako. Familien kontsumoak, enpresen inbertsioak eta arlo publikoaren gastuak nabarmen egin zuten behera modu orokor batean moneta batasuna osatzen duten herrialde guztietan. Halaber, barne produktu gordinaren hazkundeak emaitza txarrenak Europako periferia osatzen duten herrialdeetan jaso zituen.

Bizitasun handiena erakutsi duten europar herrialdeei dagokienez, Alemaniak %0,9ra galgatu zuen bere hazkunde tasa, munduko merkataritzak, baina batez ere Euroguneko beste ekonomia batzuetatik iritsitako eskariak, bizitasuna galdu zuelako. Ekipamendura bideratutako ondasunen eskaria ahuldu zen eta, horren ondorioz, inbertitzeko egitasmoetan beheranzko zuzenketa bat egin da. Frantzia, ekonomiaren hazkundeak ez zuen inolako aldaketarik izan (%0,0), iazko lehen seihilekoan bizi zen geldotasunean sakonduz. Kontsumo pribatua oso bizkor narriatu zen, langabeziaren gorakada biziaren ondorioz.

Europar Batasuneko arazo behinenetako bat langabezia tasa da eta aldagai horretan ikusten dira herrialdeen arteko diferentzia azpimarragarrienak. Azaroan, lanik gabe zeuden langileen ehunekoa %10,7 izan zen. Herrialdeen arteko aldeak nabarmentzeko orduan, bi muturretako kasuak aipatu behar dira. Mutur batean, Espainia dago, %26,6ko tasa batekin, eta beste muturrean, Austria, %4,5eko tasa apal batekin. Inflazioari dagokionez, prezioen egonkortasuna orokorra izan zen Europar Batasunean (%2,4), baina herrialde batzuetan gorakada txiki bat hauteman da, energiaren prezioak eta zeharkako zergak igo direlako.

Espainiako ekonomiak bere jaitsiera areagotu zuen hirugarren hiruhilekoan eta urte arteko tasan narriadura %-1,6an kokatu zen. Emaiza horren eragilea nazio eskariaren beherakada handiagoa izan zen, barne produktu gordinaren hazkundeari ekarpen negatiboagoa egin ziolako. Barne eskaria osatzen duten atal ia guztiek atzeraldi sakoneko ibilbidea marraztu zuten. Salbuespenak bi izan ziren: aktibo finko inmaterialetan eginiko inbertsioa, nabarmen egin baitzuen hobera, eta familien kontsumoa, BEZaren iraileko igoera saihesteko erosketa batzuk aurreratu zirelako. Beste aldetik, kanpo eskariak egonkor mantendu zuen hazkundeari egin zion ekarpena, esportazioen gehikuntzak inportazioen jaitsiera apalagoa konpentsatu zuelako.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren jarduerak narriadura gutxitu zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Portaera onena erakutsi zuen industria adarra manufakturak izan ziren. Eraikuntzari eta zerbitzuei dagokienez, sektore horietan jarduerak eta balio erantsi gordinak okertze esanguratsua pairatu zuten. Zerbitzuen kasuan, administrazio publikoaren, osasunaren, hezkuntzaren eta finantza eta aseguru jardueren erritmo galera nabarmendu behar da.

Espainiako lan merkatuak jaitsiera moteldu zuen lehen arloan eta industrian lanpostu gutxiago galdu zirelako eta zerbitzuetan egonkortasuna bizi zelako. Hala eta guztiz ere, lan merkatuaren egoera txarra islatuta geratu da galdu diren lanaldi osoko 789.000 lanpostuetan. Inflazioari dagokionez, prezioen indize orokorra oso bizkor igo zen irailean eta urrian, BEZaren gehikuntzaren ondorioz. Azaroan, adierazle hori moteltzen hasi zen eta %2,9an kokatu zen urte arteko tasa.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	0,9	-0,8	-1,0	-2,1	-1,9	-2,3	-2,5
- Familien gastua	0,6	-0,8	-0,2	-2,4	-1,3	-2,1	-2,0
- Administrazioaren gastua	1,5	-0,5	-2,7	-1,1	-3,7	-2,9	-3,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	-6,2	-5,3	-4,2	-6,0	-7,5	-9,2	-9,9
- Aktibo finko materialak	-6,7	-5,8	-4,7	-6,6	-8,2	-10,1	-10,9
- Eraikuntzan	-9,8	-9,0	-8,0	-8,6	-9,4	-11,5	-12,6
- Ekipamendurako ondasunetan	2,6	2,3	3,5	-1,7	-5,4	-6,8	-7,2
- Aktibo finko inmaterialak	3,5	3,1	4,9	2,0	3,1	2,9	4,7
Nazio eskaria (*)	-0,6	-1,9	-1,8	-3,1	-3,1	-3,8	-4,0
Esportazioak	11,3	7,6	7,6	5,8	2,4	2,9	4,3
Inportazioak	9,2	-0,9	-1,2	-4,9	-5,8	-5,1	-3,5
BPG (m.p.)	-0,3	0,4	0,6	0,0	-0,7	-1,4	-1,6
Nekazaritza eta arrantza	2,0	8,2	8,7	7,8	2,8	2,5	2,6
Industria	4,3	2,7	2,5	0,2	-3,4	-3,3	-3,0
Eraikuntza	-14,3	-5,9	-4,3	-4,5	-7,5	-7,2	-9,6
Zerbitzuak	1,2	1,4	1,6	1,1	0,8	-0,3	-0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,1	-5,5	-6,0	-5,9	-0,6	-0,5	-0,2
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	1,8	3,2	3,1	2,8	2,0	2,0	2,8
- Enplegua (**)	-2,5	-1,7	-1,6	-2,9	-3,7	-4,7	-4,6

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak azaroa arte argitaratu dituen datuek erakusten dute Estatuaren finantzazio beharra, defizita kontabilitate nazionalako terminoetan, 45.910 milioi eurokoa izan zela. BPG estimatuaren terminoetan, Estatuaren defizita aldagai horren %4,37aren baliokidea zen.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek 2012ko hirugarren hiruhilabeteko EAEko kontu ekonomikoak argitaratu ditu. Datu horien arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sortutako barne produktu gordina %1,3 gutxitu zen urte arteko tasan. Aurreko hiruhilekoarekin alderatzen bada, aldakuntza tasa %0,4 murriztu zen eta, horren ondorioz, lau hiruhileko jarraian jaso dira hiruhileko arteko tasa negatiboak. Horrek agerian uzten du EAEko ekonomiak pairatzen duen atzeraldiak denboraz luzeagoa eta iraunkorragoa izango dela. Orobat, intentsitatea ere areagotu da. Barne eskariak zertxobait leundu zuen bere narriadura, baina BPGaren bilakaera lastatzen jarraitu zuen eta berriro egin zion ekarpen negatibo bat hazkundeari. Beste hiruhileko batez, kanpo eskaria izan zen EAEko ekonomiaren bultzagilea eta gehikuntzari egin zion ekarpen positiboa 0,7 puntutan kalkulatu da.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	III
Barneko azken kontsumoa	1,2	0,3	0,3	-0,4	0,1	-1,6	-1,3
- Familien gastua kontsumoan	0,9	0,6	0,9	0,5	0,1	-1,4	-0,9
- Herri administrazioen gastua	2,3	-0,8	-2,0	-3,6	0,2	-2,4	-3,0
Kapital eraketa gordina	-6,0	-1,5	-0,2	-2,8	-4,2	-4,6	-4,3
Barne eskaria	-0,5	-0,1	0,2	-1,0	-0,9	-2,3	-2,0
Esportazioak	7,6	9,0	12,4	7,3	-2,3	-0,1	-8,5
Inportazioak	5,5	7,4	11,1	4,9	-3,0	-2,1	-9,1
BPG (m.p.)	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3
Lehen arloa	24,7	-7,6	-21,6	16,9	18,0	12,6	6,8
Industria	1,8	2,1	1,5	-0,2	-1,1	-2,6	-2,7
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-6,0	-4,8	-5,9	-6,2	-5,7
Zerbitzuak	0,6	0,9	1,3	0,6	0,2	0,0	-0,5
Balio erantsi gordina	0,1	0,7	0,6	0,1	-0,5	-1,0	-1,4
Ekoizkinen zerga garbiak	2,0	0,2	0,3	0,9	0,8	-0,1	-0,5

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, ekarpen negatiboak egin zizkieten EAEko balio erantsi gordinari. Industriak beheranzko joerari segida

eman zion, barne eskari ahul batean eta hazkunde terminoetan oso geldoa den ingurune ekonomiko batean. Eraikuntzak beherakada esanguratsua jaso zuen berriro eskaria eta eskaintza doitzeko bizi duen ibilbidean. Zerbitzuei dagokienez, atzera pauso orokorra gauzatu zen hirugarren jardueran, bereziki bizia merkaturatzen ez diren zerbitzuak biltzen dituen atalean.

Eskariari dagokionez, familien azken kontsumoak beheranzko ibilbidea leundu zuen eta hobekuntza bat erakutsi zuen aurreko hiruhilekoaren aldean. Bilakaera horren atzean, kontsumoaren aurrerapena dago, irailean indarrean sartu zen BEZaren igoera saihesteko. Administrazio publikoek, berriz, asko murriztu zuten gastua eta beren kontuetako defizita gutxitzeko politikak ezartzen jarraitu zuten. Kapitaleko eraketa gordinak beherakada txikiagotu zuen, eraikuntzan eginiko inbertsioa aurreko hiruhilekoetan baino gutxiago narriatu zelako. Ekipamendurako ondasunen eskariak, ordea, aurreko epealdian baino narriadura handiago bat pairatu zuen.

Ekoizpen jarduera

2012ko hirugarren hiruhilekoan, lehen arloak bakarrik egin zion ekarpen positibo bat balio erantsi gordinaren hazkundeari. Urte arteko tasan, %6,8 hazi zen eta sektore horrek aurreko hiruhilekoaren aldean erakutsi zuen bizitasuna hiruhileko arteko tasan islatuta geratu da, %18,9an kokatu baitzen. Hala ere, gogoratu behar da arlo horrek gorabehera handiak izaten dituela datuetan, joera iraunkorrik erakutsi gabe.

Industriak behera egin zuen 2012ko uztailetik irailera bitartean eta urtebete oso bat egin du urte arteko tasa negatiboak biltzen. Eustatek industriaren balio erantsiaz argitaratu duen datua %-2,7an kokatu zen hirugarren hiruhilekoan. Halaber, azken hilekoetan ez da inolako zantzu positiborik agertu sektore horren bilakaeran inflexio gune bat gertatu denik ondorioztatzeko. Aitzitik, ez dago elementurik, ez EAeko eskarian ez kanpotik datorrenean, industria bultzatzeko gai izango denik. Narriadurako joera bera pairatu du industria produkzioaren indizeak ere, udako eta udazkeneko hilekoetan beherakada garrantzitsuak jaso zituelako. Beste aldetik, industria ekoizpenaren jaitsiera orokorra izan zen helburu ekonomikoaren arabera sailkatuta dauden talde guztietan. Jarduera adarren arabera, tasa negatiboak orokorrak izan ziren, salbuespen bakarrak elikagaien industria, edariak eta tabakoa, eta kokeriak eta petrolio finntzea izan ziren, 2012ko hirugarren hiruhilekoan aldakuntza tasa positiboak markatu zituztelako.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012		
			IV	I	II	III	Urria	Azaroa
Industria								
Balio erantsi gordina	1,8	2,1	-0,2	-1,1	-2,6	-2,7	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	2,7	1,5	-2,2	-5,0	-8,9	-7,3	-7,8	-8,6
Industria giroaren indizea	-20,3	-12,3	-15,8	-19,5	-22,6	-22,6	---	-27,2
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	69,8	75,1	78,6	76,4	72,2	71,1	---	77,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,3	-2,2	-2,6	-3,3	-4,4	-4,9	---	-5,4
Eraikuntza								
Balio erantsi gordina	-9,8	-5,3	-4,8	-5,9	-6,2	-5,7	---	---
Eraikuntzaren indizea	-16,9	-10,1	-12,9	-22,8	-22,8	-15,6	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-1,4	-8,3	-53,6	-22,3	-48,3	-54,4	18,9	---
Etxebizitzaren salerosketak	25,4	-20,0	-18,9	-16,7	-27,0	-14,8	-9,0	-35,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,5	-8,6	-9,7	-11,1	-12,0	-12,1	---	-12,8
Zerbitzuak								
Balio erantsi gordina	0,6	0,9	0,6	0,2	0,0	-0,5	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,2	2,4	2,6	0,6	5,8	5,9	5,7	-5,7
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,3	5,1	-1,0	-2,5	0,3	0,9	-0,9	6,0
Hoteletako okupazioa	43,7	45,9	40,5	33,1	48,7	61,9	47,7	39,0
Negoio zifren indizea	2,8	-0,9	-4,1	-3,9	-7,1	-5,9	-1,7	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	---	-3,8	-3,9	-4,5	-8,5	-4,6	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,9	0,9	0,3	-0,5	-1,4	-2,0	---	-3,5


(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


Industria jardueraren atzerakada hori nabarmentzen duten koiunturako beste adierazle batzuk Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak hilabeteen behin enpresen iritziekin argitaratzen dituen adierazleak dira. Datu horien arabera, industria giroaren indizeak hilekoz hileko areagotuz joan zen beheranzko joera bat marraztu zuen. Eskari zorroen okertzeak eta etorkizuneko ekoizpenaz enpresek erakutsi zuten ezkortasun gero eta handiagoak indize orokorraren beherakada eragin zuten. Beste alde batetik, inkesta horretatik eratortzen den industriaren ekoizteko ahalmenaren erabilerak ere behera egin zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan (%71,1). Zorionez, aldagai horren azken datuek erakusten dute laugarren hiruhilekoan hobekuntza garrantzitsua izan zuela eta %77,2an kokatu zela, 2012. urte osoko daturik onena baita.

Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Eraikuntzak %5,7ko jaitsiera izan zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Beraz, egonkortasuneko joera erakutsi zuen urte osoan zehar, tasa negatibo garrantzitsu baten inguruan. Horrek agerian uzten du jarduera adar horren doikuntza ez dela oraindik amaitu. Gehiegizko eskaintzak, bankuek ezarri dituzten baldintzak gogortu izanak eta ekonomiaren atzeraldiak ez zuten eraikuntzaren susperraldia lagundu. Aitzitik, hiruhileko asko igaroko dira jarduera adar horren susperraldia erraztuko duten oinarri egokiak lortu arte.

Sektore horretaz eskuragarri dagoen koiunturako informazioak ere atzeraldiko irudi bera eskaini zuen. Gizarte Segurantzako erregistroetatik eratortzen diren enplegu zenbatekoek 2012ko hirugarren hiruhilekoan lanpostuen %12,0aren inguru desagertu zirela erakusten dute. Datu berriagoek agerian uzten dute eraikuntzaren lan merkatuak okerrera egin duela, jaitsiera %12,4ra iritsita. Jarduerari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizea %15,6 jaitsi zen uztaitetik irailera bitartean. Hala eraikinen osagaiak nola obra zibilarrenak muturreko ahultasuneko zantzuak erakutsi zituzten, baina azken urteetan bizi zen narriadura nabarmen motelduz.

Zerbitzuetako balio erantsiak okertze arina ezagutu zuen eta urte arteko hazkunde tasak %0,5 egin zuen behera 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Lehenengo aldakuntza negatiboa da 2009ko azken hiruhilekotik. Atzerakada hori orokorra izan zen sektore osoan, baina oso esanguratsua izan zen merkaturatzen ez diren zerbitzuek jaso zuten narriadura, %-1,5eko aldakuntza tasa izan baitzuten. Beste aldetik, merkaturako zerbitzuen balio erantsia %0,3 jaitsi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren beherago.

Hirugarren sektoreko taldeak aztertuta, turismoa izan zen aurreko hiruhilekoen aldean susperraldi neurritsua lortu zuen jarduera adar bakarra. EAEko aireportuak erabili zituzten bidaiarien kopuruak gora egin du azken hilekoetan eta hotelei mesedea egin die, beren establezimenduen betetze maila igoarazi duelako. Aitzitik, merkataritzak atzeraldiko joerari jarraipena eman zion. Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak, txikizkako atalean, hazkunde tasa negatiboak jaso zituen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Beheranzko bilakaera bera islatzen du INEk osatzen duen zerbitzuetako jarduera indizeak ere, sektore osoko adierazle globala baita. Arloaren beste estatistika orokor batek, Eustatek egiten duen zerbitzuen koiuntura indizeak, adar horren okertzea erakutsi zuen eta 2012ko hirugarren hiruhilekoan %4,6 jaitsi zen. Sektorea atalka banatzen denean, zeinu negatiboa guztien ezaugarri komuna da.

Ondorio negatibo berera iristen da zerbitzuetako enpleguari buruzko datuak aztertzen direnean. Hiruhilekako kontuen arabera, lanpostuen galera %1,0aren ingurukoa izan zen urte arteko tasan. Orobat, Gizarte Segurantzaz afiliatuta zeuden pertsonen kopuruaren aldakuntza

%-2,0an kokatu zen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Ondorengo hilabetei dagokien informazioa narriadurako bide beretik doa eta emaitzak aipatu direnak baino are negatiboagoak dira.

Eskariaren osagaiak

2012ko hirugarren hiruhilekoan, barneko azken kontsumoak beheranzko joera leundu zuen eta beraren aldakuntza tasa %-1,3an estimatu zen, hots, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino hiru hamarren hobe. Agregatuaren bilakaerak izan duen aldaketa horren oinarrian familiek erosketak aurreratzeko hartu zuten erabakia dago, irailean indarrean sartu zen BEZaren igoera saihesteko. Horren ondorioz, familien kontsumoa %-0,9an kokatu zen. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa nabarmen murriztu zen eta ezarritako hersturak %-3,0ra eramane zuen urte arteko aldakuntza tasa.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2011		2012			
			IV	I	II	III	Urria	Azaroa
Kontsumo pribatua								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,9	0,6	0,5	0,1	-1,4	-0,9	---	---
BMI txikizkaria	-0,6	-3,7	-2,9	-3,0	-7,5	-3,5	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-0,5	-5,6	-6,8	-3,4	-6,4	-4,7	-0,9	-0,3
Landunak txikizkarian	-0,4	-0,3	-0,8	-1,2	-1,3	-1,7	-1,6	-1,5
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,9	-24,6	-11,5	-10,9	-13,2	-19,4	---	-23,3
Kapital eraketa gordina								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-6,0	-1,5	-2,8	-4,2	-4,6	-4,3	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-1,4	5,4	4,9	-1,1	-6,2	-8,6	-10,9	-11,9
IPI ekipamendua Espainia (*)	-2,7	-0,1	-4,8	-10,4	-12,3	-10,8	-10,9	-10,9
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	4,7	1,4	8,4	7,1	1,3	-0,1	9,2	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-0,9	-17,8	-15,2	-13,0	-15,0	-18,7	---	-31,5

(*) Ziklo-joera seriea.


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, INEren eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eskariaren osagaien bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazio errealak



Inportazio errealak



Iturria: Eustat.

Udako hilabeteetan, familiek erosketa batzuk aurreratu zituzten BEZaren iraileko igoera saihesteko. Hala eta guztiz ere, ez da inolako hobekuntzarik egon kontsumoa kaltetzen duten gainontzeko alderdietan eta, are gehiago, baldintzak okertu ziren 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Izan ere, lan merkatuari dagokionez, lanpostuen galerak bere horretan jarraitzen du. Finantza arloan, bankuek kreditua lortzeko mugei eutsi zieten. Aurreko guztiaren ondorioz, kontsumitzaileen konfiantza gutxieneko balioetara jaitsi zen eta ezkortasun horrek gastua murriztea ekarri zuen berarekin. Adierazle guztiak bat datoz kontsumoaren ahulezia seinalatzeko orduan. Beste hiruhileko batez, merkataritzako indizeek salmenten beherakada garrantzitsu bat erakutsi zuten. Beste aldetik, uztailetik irailera bitartean egin ziren automobilen matrikulazioek oso nabarmen egin zuten behera.


Kapitaleko eraketa gordinak ere zertxobait leundu zuen bere jaitsiera eta 2012ko hirugarren hiruhilekoan %4,3 beheratu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Agregatuaren bilakaera horren oinarrian, eraikuntzan eginiko inbertsioa dago, bere narriadura erritmoa leundu zuelako. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak, berriz, atzera egin zuen epealdi horretan. Eustaten arabera, EAEko industria produkzioaren indizea, ekipamendurako ondasunen atalean, oso bizkor narriatu zen 2012ko uztailetik irailera bitartean. Orobat, ondasun horien inportazioak %0,1 arte murriztu ziren epealdi berean. Eskariaren ahultasunak ezarri duen mugaz gain, enpresariak finantzazio arazo handiak dauzkate, bankuek kreditua lortzea zailago egin dutelako.

Kanpo saldoa


Munduko ekonomiak bizi duen moteltzeak eragin zuzena izan zuen herrialdeen artean eginiko merkataritza salerosketetan. Izan ere, esportazioen erritmoak indarra galdu du 2011ko hirugarren hiruhilekoan jasotako %22,1etik urtebete bat beranduago bildu duen %-4,2ra, Munduko Merkataritza Antolakundeak eskaini duen informazioaren arabera. Analisia antzekoa da termino nominalak (dolarrek) erabili beharrean, esportatutako salgaien bolumena kontuan hartzen bada, eta bizitasunaren galera, kasu honetan, aurreko %6,0tik oraingo %1,4ra pasatzen da. Eremu handi guztiek nabaritu dute merkataritzako salerosketen ahultasuna, baina haietako batzuek oraindik gehikuntza tasa positiboak lortu dituzte. Hain zuzen ere, AEBetako esportazioak %1,2 hazi ziren, aurreko balioa (%5,7) baino askoz gutxiago. Txinak, berriz, %4,5 areagotu zituen kanpoan saldutakoaren balioa, baina tasa hori azken urteetako erritmorik apalena da.

Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

Europar Batasunari dagokionez, jaitsiera nominala %8,5 izan zen, bigarren hiruhilekoko baina zertxobait biziagoa. Berriro ere, batasuneko herrialdeetara eta munduko beste eremuetara bideratutako salmenten bilakaera desberdindu behar da. Lehenengoei dagokienez, beherakada askoz ere handiagoa izan zen (%-11,7) eta merkatu berrien bilaketak %3,0ko jaitsiera utzi zuen. Hala ere, dolarretan neurtutako datu hauek une bakoitzeko truke tasaren arabera aldatzen dira. Beraz, beharrezkoa da hiruhilabeteko datuak bolumenean ere aztertzea. Kasu horretan, barneko esportazioen jaitsieraren aldean, Europar Batasunetik kanpo

bidalitakoak %4,9 erreal hazi ziren. Azkenik, Japoniak oso emaitza etsigarriak izan zituen, hala termino nominaletan nola bolumenean.

Nazioarteko merkataritzaren bizitasuna galgatzten ari delako testuinguru horretan, ondasunen eta zerbitzuen EAEko esportazioen balioa %7,7 jaitsi zen urte arteko tasan, Eustatek hiruhilekako kontu ekonomikoetan estimatu duenez. Inportazioek ere oso beherakada garrantzitsua (%-7,6) izan zuten termino nominaletan. Bi kasuetan, datu txarrena da 2009ko amaieratik. Termino errealetan, zenbakiak are negatiboagoak dira eta, hurrenez hurren, %-8,5 eta %-9,1 izan dira.

Analisia atzerriarekin eginiko ondasunen salerosketetan fokatzten bada, salmenten jaitsiera ere oso garrantzitsua izan zela (%-9,7) hautematen da. Beherakada hori, ia osorik, garraioari lotuago dauden produktuetan pilatzen da, esate baterako garraio materialean (%-22,6) eta plastikoa eta kautxuan (%-45,2). Aitzitik, gainontzeko taldeek urte arteko gehikuntza txiki bat lortu zuten. Ontziolen jarduerak bizi dituen zailtasunak eta, batez ere, automobilgintzaren bultzadarik ezak azaltzen dute hiruhilekoaren jaitsiera. Hala eta guztiz ere, atal horretan egoten diren gorabehera handiek iradokitzen dute jaitsiera horrek ez duela zertan jarraitu datozen hiruhilekoetan.

Atzeritik etorritako ondasunen inportazioek laugarren murrizketa jarraitua kateatu zuten, baina hirugarren hiruhilabeteko jaitsiera aurreko bi epealdietakoa baino nabarmen txikiagoa izan zen. Nabarmentzen dira produktu mineral eta energetikoen (erregaiak, batez ere) erosketaren gehikuntza, aurreko jaitsiera bizien ondoren, eta makinen eta tresnen inportazioen aurrerakada berria, aurreko hiruhilekoetakoa baino askoz txikiagoa izan arren. Beste muturrean, metal arrunten erosketak, guztizkoan pisu gehien duten taldeetako bat baita, laugarren datu negatibo jarraitua jaso zuen, baina aurreko biak baino askoz motelagoa izan zen honako hau. Garraioari lotutako taldeek ere beherakada garrantzitsuak eskuratu zituzten hirugarren hiruhilekoan.

Ekonomia eremuek izan zituzten hazkunde erritmo ezberdinak EAEko enpresek merkatu bakoitzean lortu zituzten salmentetan islatzen dira. Izan ere, AEBetan bakarrik lortu zen esportazioak nabarmen areagotzea (%24,0). Aitzitik, Europako ekonomien geldotasunak EAEko enpresei eginiko eskaerak baldintzatu zituen, %18,6 murriztu baitziren. Europan dauden bi helburu merkatu nagusiek, hots, Alemaniak eta Frantziak, ehuneko esanguratsuetan gutxitu zituzten eskaerak, Italiak bezala (%-34,7). Europako herrialde handien artean, Erresuma Batua izan zen salbuespena, baina gehikuntza (%1,8) txikia izan zen.

ELGETik kanpoko herrialdeen multzoa ere ez zen helburu dinamiko bat EAEko ekoizkinen salmentarako eta, oro har, eremu horretara esportatutakoa %1,9 gutxitu zen. Zalantzarik gabe, ehuneko hori herrialde garatuetan jasotakoa baino askoz txikiagoa da, baina garapen bidean dauden ekonomien sendotasuna kontuan hartuta, beraietan saldutakoa gutxiago izana emaitza txartzat jo behar da. Herrialdeka, Txinara esportatutakoa %41,1 jaitsi zen, automobil eta errektore nuklear gutxiago saldu zirelako. Brasilen, datuek jaitsiera arina erakusten dute. Errusian, berriz, salmenten lehen murrizketa urteetan jaso zen, errektore nuklearrek eta tresnek emaitza txarra izan zutelako.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila €
	2011		2012			2012-III
	III	IV	I	II	III	
Esportazioak	25,5	24,8	0,2	2,2	-9,7	4.752.018
Nekazaritzako produktuak	18,3	28,3	16,6	70,2	40,7	226.300
Prod. mineral eta energetikoak	11,1	104,8	-28,9	-32,9	6,5	558.718
Produktu kimikoak	-3,0	-15,8	-22,7	-10,8	-16,6	90.157
Plastikoa eta kautxua	198,8	21,4	78,3	25,5	-45,2	480.874
Papera	-2,1	-4,6	-3,8	-7,2	4,1	123.789
Metal arruntak eta manufakturak	5,7	7,3	-7,4	-7,6	0,0	1.177.575
Makinak eta tresnak	5,1	25,4	19,2	7,4	8,0	1.005.785
Garraio materiala	36,0	25,7	-7,7	9,9	-22,6	851.456
Bestelakoak	5,3	2,0	0,8	-1,9	-10,4	237.361
Inportazioak	11,5	-2,8	-15,5	-17,4	-3,9	3.984.871
Nekazaritzako produktuak	0,1	-4,3	-5,5	3,0	8,7	234.924
Prod. mineral eta energetikoak	9,9	-15,8	-30,2	-30,4	7,1	1.566.179
Produktu kimikoak	66,0	38,2	11,2	1,6	-15,9	177.450
Plastikoa eta kautxua	70,2	38,8	17,3	-17,4	-32,2	220.188
Papera	23,0	-7,0	-13,0	-27,5	-38,5	73.060
Metal arruntak eta manufakturak	2,1	-6,2	-22,9	-22,7	-6,7	773.222
Makinak eta tresnak	4,0	5,1	6,3	3,3	0,9	555.723
Garraio materiala	-3,1	23,6	10,0	-5,5	-3,8	137.154
Bestelakoak	7,6	-6,3	-0,9	6,3	-15,7	246.973

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Inportazioen analisisian, deigarria da erosketak garatutako herrialdeetan areagotu direla, baina garapen bidean daudenetan, ordea, gutxitu direla. Lehen kasuan, ELGEren multzoak

hornitutako ondasunen balioak %8,3an gainditu zuen aurreko urteko zenbatekoa. Gainontzeko herrialdeek, berriz, %17,9ko jaitsiera izan zuten urte arteko tasan, aurreko hiru hiruhilekoetan jasotakoei jarraipena emanez. Europa da oraindik EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia, baina zertxobait gutxitu zuen bere aldakuntza tasa, Frantzia eta Alemanian eginiko eskaerak murriztu zirelako. Jaitsiera hori neurri batean konpentsatu zuten britainiar eta italiar ekoizkinen eskari handiagoak.

Azaleratzen ari diren herrialdeetan erositakoa gutxiago izan zen ia guztietan, salbuespena Errusia (%34,1) izan zelarik, erregaiei hornitzaile nagusietakoa baita, aurreko epealdietako emaitza txarrak konpentsatuz. Txinak (%-13,5), Brasilek (%-9,9) eta beste herrialde garatu gabeek (%-41,4) EAEko ekonomiak 2012ko hirugarren hiruhilekoan izan zuen jardura eza nabaritu zuten.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2012-III	Guztiarekiko ehunekoa
	2010	2012						
		IV	I	II	III			
Esportazioak	19,6	20,1	24,8	0,2	2,2	-9,7	4.752.018	100,0
ELGE	21,1	27,3	33,2	4,9	1,9	-11,8	3.667.993	77,2
Europar Batasuna 27	22,3	26,3	34,4	7,6	1,9	-18,6	2.865.700	60,3
Europako kide berriak	26,4	29,4	23,2	15,2	13,4	-21,2	250.012	5,3
Alemania	19,7	25,4	14,9	3,4	4,7	-16,4	632.079	13,3
Frantzia	23,5	36,6	86,4	4,3	-6,7	-9,4	825.198	17,4
AEB	18,1	20,1	-1,1	-39,5	-19,4	24,0	396.862	8,4
ELGE ez direnak	15,2	0,3	-0,1	-13,9	3,1	-1,9	1.084.025	22,8
Inportazioak	25,5	12,1	-2,8	-15,5	-17,4	-3,9	3.984.871	100,0
ELGE	24,7	9,8	11,7	5,4	1,4	8,3	2.398.512	60,2
Europar Batasuna 27	23,3	7,7	6,0	-13,1	-5,9	-2,5	1.789.415	44,9
Europako kide berriak	9,0	19,5	-3,7	-28,1	1,7	-28,1	103.294	2,6
Alemania	22,6	18,3	17,8	9,0	2,0	-7,4	456.804	11,5
Frantzia	29,4	12,2	0,5	-4,2	-7,8	-12,7	380.224	9,5
AEB	6,1	67,4	121,5	141,0	-25,4	-29,2	121.432	3,0
ELGE ez direnak	36,7	15,3	-20,9	-39,0	-41,6	-17,9	1.586.359	39,8

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Atzerrian saldutako eta erositako ondasunen beherakadak 767 milioi eurotan utzi du EAEko merkataritza saldoa. Diru kopuru hori ez da oso handia aurreko lau hiruhilekoetan lortutako datuekin alderatzen bada, guztietan 1.000 milioi euroko saldoa lortu baitzen. Ohikoa denez, ondasun energetikoen saldoa oso negatiboa izan zen eta 1.007 milioi eurora iritsi zen. Aitzitik, energiaz bestelako saldoa EAEren aldekoa izan zen eta 1.774 milioi eurotan kokatu zen, aurreko epealdietan baino gutxiago, baina oso esanguratsua serie historiko osoa kontuan hartzen bada.

Lan merkatua

Lan merkatuaren adierazle berrienek seinalatzen dutenez, EAEko lan merkatuak narriadura areagotu zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan, ekonomiak 2011ko erdialdetik bizi duen atzeraldi gero eta sakonagoarekin bat eginez. Hori horrela izanda, ekonomiaren jarduera maila apalak eragin handia izan zuen lan merkatu horretan, lanpostuak galtzeko erritmoa berriro areagotuz.


Aipatua izan den enplegu galeraren bizkortzea aldagai hori aztertzen duten estatistika eta erregistro guztietan islatuta geratu zen. Beherakada handiena, berriro, BAI inkestak aurkeztu zuen, beheranzko joeran bizkortze bizia estimatu zuelako. Hain zuzen ere, 2009ko amaieratik inoiz jaso den baliorik negatiboen (%-7,5) eman zuen inkesta horrek. Emaiza hori ez dator bat gainontzeko estatistikek eskaini dituzten datuekin eta ez dago justifikatuta ekoizpenaren bilakaera ikusita. BJA inkestak ere, lan merkatuaren beste inkestak bezala, oso datu negatiboa argitaratu zuen (%-3,6), baina ibilbidea lauagoa da. Azkenik, kontu ekonomikoek eta Gizarte Segurantzako afiliazioak hirugarren hiruhilekorako erakutsi zituzten erregistroak oso antzekoak dira, hurrenez hurren, %2,7ko eta %2,4ko beherakadekin. Azken hauen narriadura hirugarren hiruhilekoan egonkortu bazen ere, ondorengo hilekoetan afiliazioaren datuek okerrera egin zuten nabarmen, urte arteko jaitsierak %3 gainditu arte.

Adierazi berri denez, kontu ekonomikoek estimatu zuten enplegu galera aurreko hiruhilekoko baino handiagoa izan zen, azken hamabi hilekoetan ia 26.000 lanpostu galdu baitziren. Galera hori sektore handi guztietara zabaldu zen, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, bere enplegua zertxobait areagotu zuelako berriro. Zehazkiago, eraikuntza berriro izan zen arlo kaltetuena termino erlatiboetan (%-12,3), obra zibilarren esparruan murrizketak egin zirelako eta egoitzetan eginiko inbertsioa gutxitu zelako. Beste aldetik, termino absolutuetan industriak galdu zituen besteei baino lanpostu gehiago, 10.093 langile galduta. Azkenik, zerbitzuek ere


landunak murriztu zituzten eta 650.000 lanpostuen azpitik geratu ziren, lehenengo aldiz 2010eko hasieratik.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzaren eta INE.

Kontuan hartuta, kontu ekonomikoaren arabera, bai lanpostuen kopurua bai ekoizpena lau hamarren jaitsi zirela, produktibitatearen irabazia hirugarren hiru hilekoan aurreko bi epealdietan lortutakoaren antzekoa izan zen (%1,4). Lehen arloaz aparte, horrek oso emaitza altua jaso baitzuen berriro, produktibitatearen gehikuntza handiena eraikuntzan jaso zen berriro (%7,5), ondoren industria (%2,1) datorrela, bi kasuetan lanpostuen galera garrantzitsu

baten ondorioz. Zerbitzuetako produktibitatea, berriz, %0,5 hobetu zen, balio historikoetatik oso hurbil, sektorea orain enplegua galtzen ari den arren.

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012	
			IV	I	II	III
Enplegua guztira	-0,9	-0,6	-1,3	-1,7	-2,3	-2,7
<i>Produktibitatea guztira</i>	1,2	1,2	1,5	1,4	1,4	1,4
Enplegua lehen arloan	-1,0	-3,9	-2,2	-0,3	3,2	1,5
<i>Produktibitatea lehen arloan</i>	26,0	-3,9	19,5	18,4	9,1	5,2
Enplegua industrian	-3,6	-1,9	-2,4	-3,0	-4,3	-4,7
<i>Produktibitatea industrian</i>	5,6	4,1	2,3	2,0	1,8	2,1
Enplegua eraikuntzan	-6,9	-7,8	-9,7	-11,7	-12,1	-12,3
<i>Produktibitatea eraikuntzan</i>	-3,1	2,7	5,4	6,6	6,7	7,5
Enplegua zerbitzuetan	0,9	0,9	0,2	-0,1	-0,7	-1,0
<i>Produktibitatea zerbitzuetan</i>	-0,3	0,0	0,4	0,3	0,7	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestaren arabera, enpleguaren galerak kalte eman zien bi sexuei eta adin talde guztiei. Hala ere, enplegu tasaren azterketa batek iradokitzen du lan merkatuaren narriadurak gehiago kaltetu zituela gazteak, lana dutenen ehunekoak beste 3,6 puntu galdu dituelako aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean, %15,5ean kokatu arte. Aitzitik, adin handiagoko taldeen enplegu tasa egonkortuta daude, %75ean 25 eta 44 urte bitarteko taldean, eta %36an 44 urtetik gorako taldean. 16 urtetik gorako biztanlerian, %48,3 bakarrik zegoen lanean hirugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan zeudenak baino puntu erdi bat gutxiago.

Aldi berean, biztanleria aktiboak gutxituz jarraitu zuen, urte arteko jaitsiera 24.200 lagunekoa izan zelarik. Kopuru horrek %-1,9an uzten du azken hamabi hilabeteko aldakuntza tasa. Horren ondorioz, jarduera tasa %54,7an kokatu zen, 2007ko hasieratik inoiz jaso den baliorik apalena baita. Lan merkatutik irteteko prozesu horretan hainbat arrazoi daude. Izan ere, biztanleria zahartzen ari denez, askoz gehiago dira lan merkatutik irteten direnak sartzeko gutxieneko adina betetzen dutenak baino. Horren ondorioz, partaidetza tasa orokorrak beherantz jotzen du. Baina talde gazteenetan nolabaiteko etsipena ere hautematen da, lanpostu bat lortzea zaila delako. Beraz, bilatzeari uzten diote. Badirudi hori dela 25etik 44 urtera doan taldearen partaidetza tasa %85,9ra jaitsi izanaren arrazoa, aurreko datua baino puntu erdi bat

beherago. Gazteek, berriz, ikasketak luzatzea aukeratzen dute enplegua bilatzen hasi baino lehen.

PARTAITETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoak


	2010	2011	2011	2012		
			IV	I	II	III
Partaidetza tasa	55,9	56,2	55,8	55,4	55,4	54,7
- Gizonak	64,0	63,2	62,5	62,2	61,3	60,9
- Emakumeak	48,3	49,5	49,4	49,0	49,8	48,9
- 16 urtetik 24ra	31,9	30,3	28,1	29,2	27,5	24,4
- 25 urtetik 44ra	87,3	87,6	87,0	86,7	86,4	85,9
- 45 urte eta gehiago	39,3	40,2	40,4	40,0	40,2	40,0
Enplegu tasa	50,8	50,1	49,5	48,7	48,8	48,3
- Gizonak	57,8	56,1	54,9	54,4	53,9	53,5
- Emakumeak	44,2	44,4	44,4	43,4	44,1	43,3
- 16 urtetik 24ra	23,9	23,0	21,3	21,4	19,1	15,5
- 25 urtetik 44ra	78,9	77,1	75,9	75,1	75,1	75,0
- 45 urte eta gehiago	36,8	37,2	37,3	36,6	36,9	36,8
Langabezia tasa	9,2	10,8	11,2	12,1	11,9	11,8
- Gizonak	9,6	11,3	12,1	12,6	12,1	12,1
- Emakumeak	8,6	10,3	10,1	11,5	11,5	11,3
- 16 urtetik 24ra	25,1	24,0	24,2	26,5	30,8	36,5
- 25 urtetik 44ra	9,6	12,1	12,7	13,4	13,0	12,7
- 45 urte eta gehiago	6,6	7,5	7,6	8,6	8,2	8,1

Iturria: BJA (Eustat).

Lanpostuen galera garrantzitsuak langabeziaren gorakada bizia ekarri zuen berarekin, urte arteko tasan eta BJaren arabera %8tik gorakoa. Horren ondorioz, langabezia tasak gora egin zuen, 2011ko hirugarren hiruhilekoan estimatu zen %10,6tik oraingo %11,8ra. Hala ere, adierazle horrek jaitsiera arina izan du aurreko balioen aldean. Hain zuzen ere, bai lehen hiruhilekoko langabezia tasa bai bigarren hiruhilekoko hirugarrenekoa baino zertxobait handiagoak izan ziren, eta bi hiruhilabete kateatu dira beherantz. Zoritzarrez, langabezia tasaren jaitsiera lan merkatua uztearen ondorioa da eta ez enplegua sortzearen ondorioa. Langabeziaren igoerak eragin handiagoa izan zuen gazteen artean eta beraien tasa biztanleria aktiboaren %36,5ean dago jadanik, aurreko balioa baino ia sei puntu gorago. Aitzitik, emaitzak hobeak dira gainontzeko adinetan. Beraz, arazoa belaunaldi gazteenetan fokatzen ari da. Langabeien artean kontuan hartu behar den beste alderdi negatibo bat estaldura adierazlearen

okertzea da, azken hilekoetan %57aren inguruan kokatu baitzen, aurreko epealdietako emaitzen oso azpitik.

Langabezia tasaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua erregulatzeko dossierren kopuruak gora egin zuen berriro, azaroan eskuragarri zeuden azken datuen arabera, bi arrazoiengatik bereziki. Alde batetik, administrazioaren baimena orain ezinbestekoa ez izateak dossierren kopurua areagotzea ekarri du, nahiz eta gero epaileek ebatzi dezaketen dossierra baliogabea edo bidezkoa den, akordiorik ezean. Beste aldetik, araudiaren aldaketek gain, atzeraldian berriro sartu izanak eragina izan zuen kopuruan.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2010	2011	2011		2012			Azaroa
			III	IV	I	II	III	
Dossierren kopurua	1.993	1.560	268	545	644	744	518	218
Eragindako langileak	35.426	22.072	4.733	7.414	9.811	9.431	8.437	2.019
<i>Dossier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	1.051	2.203	473	948	1.157	1.716	933	484
- Behin-behineko etetea	32.349	17.991	3.781	5.669	7.721	6.535	7.055	1.434
- Kontratua amaitzekoa	2.026	1.878	479	797	933	1.180	449	101

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Dosier moten artean, behin-behineko eteteak eta lanaldia murriztekoak izan ziren berrito gehien erabili zirenak, 2009. urtetik diru laguntzak daudelako, bai langileentzat bai enpresentzat, dossier mota horiek erabiltzen dituztenentzat, enplegu galera gelditzeko asmoarekin. Hala ere, 2013. urtetik diru laguntza horiek desagertuko dira eta, horren ondorioz, kontratua amaitzeko dossierrek protagonismoa irabaziko dutela espero da.

Azkenik, adierazi behar da aldibaterakotasuneko tasak baliorik gorena hartu zuela 2006ko amaieratik, %22,3ra iritsita. Aldibaterakotasuneko tasaren igoera bi arrazoietan oinarritzen da, kontratu mugagabea duten landunak gutxitu izatean eta aldi baterako landunen kopurua, berriz, igotzean.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Prezioen bilakaera aztertzen duten adierazle guztiek, salbuespen bakarra BPGaren deflatoea delarik, goranzko joera erakutsi zuten 2012ko hirugarren hiruhilekoan, petrolio gordinaren presio inflaziogileak eta zergen igoerek kaltetuta. Hala eta guztiz ere, azken hilekoetan, presio hori moteldu egin da eta goranzko joera zertxobait irauli da. Lan kostuek, berriz, beste urrats bat eman zuten lan merkatuaren egoera zailari egokitzeko eta hazkunde negatiboak erakutsi zituzten, neurri batean iraiztearen kostuak murriztu zirelako.

Prezioak


Prezioak BPGaren deflatorearen bitartez aztertzen direnean, ekonomia osoaren prezioek beheranzko joera arina izan dutela ikusten da. Izan ere, deflatoea %0,9an kokatu zen, 2010eko lehen hiruhilekotik jaso den baliorik apalena baita. Hala ere, pisu gehien duen deflatoea, hots, kontsumo pribatuarena, igo egin zen aurreko hiruhilekoaren aldean (%1,8tik %2,0ra igaro zen), KPI indizeak erakutsi zuen bilakaerarekin bat eginez. Aitzitik, kontsumo publikoaren (%0,1) eta kapital eraketa gordinaren (%0,6) deflatoreek behera egin zuten epealdi berean.

KPIari dagokionez, aurreko epealdian bizi zuen moteltzearen ondoren, nabarmen igo zen hirugarren hiruhilekoan, energiaren salneurriak izan zuen gorakadak, zergen igoerek eta administrazioaren salneurriek azken prezioetan izan zuten eraginaren ondorioz. Beraz, kontsumoak ahultasun esanguratsua nozitzen duen arren, prezioen bilakaera orokorra

administrazioaren hainbat erabakiek baldintzatu zuten, salneurri horiek goraraziz. Dena dela, erabaki horiek iragankorrak dira eta beraien eragina hamabi hileko igaro ondoren desagertuko da. Halaber, hirugarren hiruilekoan hauteman zen gehikuntzak moteltzera jo zuen ondorengo hilekoetan. Hain zuzen ere, azaroan urte arteko tasa %2,7ra jaitsi zen, energia ekoizkinak gutxiago garestitu zirelako.

Prezioen gehikuntza horrek Eurogunearekiko inflazio tartearen zeinua aldatu zuen, hileko askoan negatiboa izan ondoren positiboa izatera igaro baitzen. Hain zuzen ere, 2011. urteko maiatzetik inoizko baliorik gorena (%0,6) markatu zuen urrian, baina hamarren bat jaitsi zen gero azaroan, energiaren salneurriak proportzioz gehiago apaldu zirelako EAEn Eurogunean baino.

KPlaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta INE.

Azpiko inflazioak ere zergen igoeraren ondorioak nabaritu zituen, bereziki BEZaren iraileko gehikuntzarenak. Hori dela eta, azaroan %2,1ean kokatu zuen urte arteko aldakuntza tasa, Europako Banku Zentralak prezioen egonkortasunerako ezarri zuen erreferentzia zertxobait gaindituz. Indize orokorraren beste osagai nagusiak, hots, hondar inflazioak, nabarmen apaldu zuen bere hazkunde tasa, energiaren garestitzea gutxitu zelako, baina oraindik urte arteko tasa oso altuak erakusten ditu.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2010	2011	2012			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazioa guztira (%100)	1,7	3,1	1,9	2,5	2,7	2,7
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,7	1,8	1,2	1,5	2,1	1,7
- Landutako elikagaiak (%13,6)	0,7	3,8	3,1	3,5	3,6	0,5
- Industriako ondasunak (%27,7)	-0,2	0,7	-0,1	0,4	0,8	0,2
- Zerbitzuak (%41,3)	1,4	2,0	1,3	1,6	2,4	1,0
Hondarreko inflazioa (%17,4)	6,6	9,5	5,7	7,1	5,8	1,0
- Landugabeko elikagaiak (%6,9)	0,2	1,5	2,9	2,5	3,9	0,3
- Energia (%10,5)	11,5	15,3	7,5	10,0	7,0	0,7

Iturria: INE.

Horiek horrela, KPIaren osagai ez-energetiko guztiek beren prezio igoerak bizkortu zituzten aurreko epealdiaren aldean. Hain zuzen ere eta landutako elikagaiekin hasita, tasa altuetan jarraitu zuten, baina hazkundea galgatzen lehenak izan ziren, neurri batean tabakoaren garestitzeak urte arteko tasan utzi zuen eragina desagertu zelako. Industria ondasunei dagokienez, oro har inflazioa apaltzen lagundu zuten arren, azken hilekoetan zertxobait igo zuten urte arteko tasa, BEZaren eraginarengatik. Azkenik, zerbitzuen jarduerak oso ezberdinak diren arren, guztiek erakutsi zuten goranzko joera orokor bat prezioen bilakaeran, hauek ere zergen aldaketaren eraginak baldintzatuta.

Indize orokorrean eragin positibo handiena zuten taldeen artean, adierazi behar da edari alkoholunak eta tabakoa, eta etxebizitzari lotutako zerbitzuak aldakuntza tasa altuetan kokatu zirela berriro, eta bi talde horiei medikuntzarena gehitu zitzaizela, aurreko hiruhilekoetan tasa negatiboak jaso ondoren balio altuak jaso zituelako. Hiru taldeetako lehenak, tabakoaren salneurriaren igoera zuzenduta geratu zen arren, oraindik tasa garrantzitsu bat (%5,6) erakutsi zuen azaroan. Etxebizitza, berriz, hileko horretako talderik inflaziogileena (%6,4) izan zen, argindarrak, gas banaketak eta berogailuetarako gasolioak izan zuten garestitzearen ondorioz. Hala ere, azken produktu hori motelduz joan zen, energiak erakutsi zuen bilakaera positiboaren ondorioz. Azkenik, botiken eta farmazietako beste ekoizkinen salneurriek oso nabarmen bultzatu zuten gora medikuntza taldearen urte arteko aldakuntza tasa azken hilekoetan, %4,0an kokatu arte.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2010	2011	2011		2012		
			IV	I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	1,7	3,1	2,7	2,0	1,9	2,5	2,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,7	2,2	2,4	2,7	2,5	2,5	3,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	10,7	9,8	7,8	1,9	7,3	8,5	5,6
Jantziak eta oinetakoak	-0,2	0,3	0,4	-0,1	0,5	0,1	0,5
Etxebizitza	3,1	7,8	7,0	4,2	5,5	6,6	6,4
Etxeko hornidura	0,9	1,5	1,3	0,3	0,4	1,3	2,4
Medikuntza	-0,1	-0,6	-1,6	-2,7	-2,5	-0,7	4,0
Garraioa	6,5	7,7	6,2	5,2	3,6	4,8	2,4
Komunikazioak	-0,7	-0,8	-1,5	-3,5	-3,8	-3,8	-2,8
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,4	0,5	0,3	1,3	1,7
Irakaskuntza	2,2	1,3	1,3	2,1	2,8	2,9	3,4
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,7	1,2	0,9	1,0	0,9	1,2
Besteak	2,1	2,7	2,4	2,1	1,5	2,2	3,9

Iturria: INE.

Talde gehienek gorakadak izan zituzten bitartean, komunikazioen taldeak prezioak jaitsi zituen aurreko urteko mailaren aldean. Hain zuzen ere, talde horrek %-2,8an kokatu zuen bere urte arteko tasa azaroan, azken urteetan erakutsi duen salneurriak merkatze joerari jarraipena emanez. Telefono zerbitzuetan bizi den prezio gerra dago azken salneurriaren beheranzko bilakaera horren oinarrian.

IPRIari dagokionez, azaroan bere hazkunde tasa %0,8ra arte moteldu bazuen ere, dagoeneko 34 hileko kateatu ditu emaitza positibotan. Azken hilekoetako beheranzko fase honetan, zerikusi handia izan zuen energiaren portaerak. Hain zuzen ere, energiaren osagaiak %4,4an kokatu zuen bere urte arteko tasa, petrolioaren fintzea merkatu zelako eta argindarraren ekoizpena, garraioa eta banaketa 2011ko azaroan baino gehiago garestitu zirelako. Ekipamendurako ondasunek ere lagundu zuten industria prezioen hazkundera apaltzen, urte arteko tasa hamarren bat gutxitu zutelako, motorreko ibilgailuen ekoizpenaren prezioek izan zuten jaitsierari esker. Gainontzeko taldeetan gorakadak jaso ziren, guztien artean kontsumoko ondasunen igoera nabarmentzen delarik, hainbat hilekoetan salneurriak gutxitu ondoren, tasa positiboetara itzuli zirelako.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			IV	I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	3,3	7,6	6,2	3,2	1,6	1,6	0,8
Kontsumoko ondasunak	0,2	2,4	1,9	0,3	-0,5	-0,5	0,1
- Kontsumo iraunkorrak	-0,5	0,5	0,8	0,7	0,7	0,4	0,3
- Kontsumo iragankorrak	0,5	3,1	2,3	0,2	-1,0	-0,9	0,0
Ekipamendurako ondasunak	0,1	2,1	2,2	1,4	1,2	0,8	0,0
Bitarteko ondasunak	3,1	6,2	3,2	0,6	-0,6	-0,8	-0,1
Energia	11,7	21,9	21,7	13,3	8,2	9,7	4,4

Iturria: Eustat.

Lan kostuak eta soldatak

Lan kostu osoa langile eta hileko bakoitzeko %0,7 jaitsi zen EAEn 2012ko hirugarren hiruilekoan aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta, nahiz eta jaitsiera hori ez zuen soldaten kostuak eragin, gainontzeko kostuen murrizketak baizik. Soldaten kostuei dagokienez, aurreko hiruilekoko eta KPI indizearena baino txikiagoa izan zen. Horrek esan nahi du igoera ez zela nahiko izan erosteko ahalmenaren galera saihesteko. Gainontzeko kostuek behera egin zuten iraizteen kalte ordainak gutxitu zirelako, lan erreforma onartu zenetik, nabarmen murriztu baitziren.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	1,4	0,6	2,5	0,7	2,2	2,2	-0,7
- Soldata kostuak	2,0	0,2	0,7	0,9	1,4	2,4	1,3
- Bestelako kostuak	-0,4	1,9	8,0	0,2	4,6	1,6	-6,1
Kostu osoa industrian	2,3	1,6	2,5	1,7	4,0	-0,2	-0,3
Kostu osoa eraikuntzan	-0,3	2,3	2,2	1,7	-2,6	-2,9	-3,5
Kostu osoa zerbitzuetan	1,4	0,3	3,1	0,6	2,2	3,8	-0,6

Iturria: INE.

Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, jarduera arlo guztiek lan kostu osoa jaitsi zuten urte arteko tasan. Joera horren erantzule nagusiak, lehenago aipatu denez, lan kontratua amaituta sortzen diren irazitzen kostuak eta kalte ordainak dira. Salbuespena industria da. Halaber, lan egindako ordu bakoitzeko lan kostuak ere gutxitu ziren, baina azken hauek oraindik aldakuntza tasa positibotan daude.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	0,6	0,7	4,4	1,8	2,9	4,8	0,5
- Soldata kostuak	1,2	0,2	2,6	2,0	2,1	5,0	2,5
- Bestelako kostuak	-1,1	2,1	9,9	1,2	5,4	4,1	-5,0
Kostu osoa industrian	0,3	-0,5	3,8	0,7	4,4	2,3	-3,4
Kostu osoa eraikuntzan	0,7	1,7	4,3	3,6	-1,5	-1,8	-3,0
Kostu osoa zerbitzuetan	0,6	1,2	5,2	2,2	2,6	6,4	2,2

Iturria: INE.

Azkenik, hitzarmen kolektiboetako datuek baieztatzen dute soldaten igoerak moteltzeko joera bati ekin zaiola EAEko ekonomian. Izan ere, azaroa arte indarrean zeuden hitzarmenetako soldatak %2,5 gehitu ziren, baina urtean zehar sinatu zirenak %1,7 baino ez ziren hazi. Horren ondorioz, soldatapekoek erosteko ahalmena galdu zuten, lan hitzarmena adostuta duten langileen kopurua oraindik oso txikia den arren.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2008	2009	2010	2011	2012 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	5,0	2,7	1,9	3,6	2,5
- Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	3,4	1,7
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,2	2,8	1,7	3,8	2,5
- Enpresako hitzarmenak	4,1	2,6	2,4	3,1	2,3

(*) 2012ko azaroa arte jasotako lan hitzarmenak

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Aurrekontuen egikaritzak, iraila arteko datuekin, neurri batean islatzen ditu defizita gutxitzeko onartu diren aparteko neurriak, hala diru sarreren ikuspegitik nola gastuen aldetik. Diru sarreretan eragina duten erabakiei dagokienez, zeharkako zergen igoera nabarmendu behar da, BEZ zergaren tipo orokorra eta murriztua igo zirelako, eta baita sozietateen gaineko zergen egin diren aldaketak ere. Gastuen ikuspegitik, nabarmendu behar den erabakia administrazioan lan egiten duten soldatapekoen ordainketa gutxitu izana da. Horiei esker aurrezki publikoak gehikuntza garrantzitsua (%9,0) lortu du.

Gastuen aldetik, doikuntza esanguratsua gertatu zen eta erabilerak nabarmen murriztu ziren gastu arrunteko atal behinenetan, salbuespena finantza gastuak izan zirelarik, zor publikoaren goranzko bilakaeraren ondorioz oso nabarmen igo zirelako. Hala eta guztiz ere, inbertsioek gorakada handia erakutsi zuten, nahiz eta aldakuntza tasa horietan egutegiak eragin garrantzitsua izaten duen.

EUSKO JAURLARITZAKO AURREKONTUEN ERAGIKETA (2012ko urtarriletik irailera)

Mila eurotan

	2011	2012	Aldakun. %
1. SARRERA ARRUNTAK	6.672.156	6.651.012	-0,3
2. GASTU ARRUNTAK	6.002.917	5.921.373	-1,4
Langileen gastuak	1.383.750	1.354.344	-2,1
Funtzionamenduko gastuak	2.289.383	2.188.103	-4,4
Finantza gastuak	80.879	118.052	46,0
Transferentzia arruntak	2.248.905	2.260.874	0,5
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	669.239	729.639	9,0
4. KAPITALEKO SARRERAK	66.883	107.975	61,4
5. KAPITALEKO GASTUAK	408.415	533.553	30,6
Inbertsio errealak	129.587	215.728	66,5
Kapitaleko transferentziak	278.828	317.825	14,0
6. FINANTZA AHALMENA (+) EDO BEHARRA (-) (3+4-5)	327.707	304.061	-7,2

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Aurreko hilekoetan bezala, foru aldundiek zergen bidez bildutako diru sarrerek ekonomiaren ahultasuna islatu zuten 2012ko lehen hamar hilekoen zenbateko pilatuan. Hain zuzen ere, foru

aldundiek 8.539 milioi euro bildu zituzten, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta %3,2ko jaitsiera baita eta 282 milioi euro gutxiago diru sarreratan.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2012ko urtariletik urrira)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2011	2012	Aurrekon . %	12/11 aldak.
PFEZ	3.183.323	3.203.640	72,0	0,6
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.529.152	3.514.779	76,3	-0,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	173.026	199.042	95,2	15,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	65.279	67.446	75,9	3,3
- Ondare irabazien atxikipenak	12.739	16.115	118,2	26,5
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	121.620	118.900	74,0	-2,2
- Kuota diferentzial garbia	-718.493	-712.642	112,5	0,8
Sozietateen gaineko zerga	1.109.182	1.051.953	92,3	-5,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	173.026	199.042	95,2	15,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	65.279	67.446	75,9	3,3
- Ondare irabazien atxikipenak	12.739	16.115	118,2	26,5
- Kuota diferentzial garbia	858.138	769.350	92,9	-10,3
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	77.875	25.289	32,9	-67,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	63.342	67.262	82,8	6,2
Ondarearen gaineko zerga	---	107.847	---	---
Iraungitako zergak	2.750	---	---	---
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	4.436.472	4.455.991	77,5	0,4
BEZaren bertoko kudeaketa	2.455.079	2.085.085	61,6	-15,1
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	80.885	66.561	60,7	-17,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	48.562	34.399	57,9	-29,2
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	20.373	14.994	61,0	-26,4
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.131.690	1.129.747	77,9	-0,2
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	36.743	36.515	73,6	-0,6
Aseguru sarien gaineko zerga	60.445	56.664	71,1	-6,3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3.833.777	3.423.966	66,3	-10,7
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	84.705	84.220	73,6	-0,6
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	8.354.955	7.964.177	72,3	-4,7
BEZaren doikuntza	546.678	670.749	55,6	22,7
Zerga berezien doikuntza	-80.026	-95.063	85,9	-18,8
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	8.821.607	8.539.863	70,5	-3,2

Iturria: Foru Aldundiak.

Zuzeneko zergak izan ziren berriro bizitasun handiena erakutsi zutenak, eta beraien mota esanguratsuenen artean, PFEZ nabarmendu behar da, gehikuntza txiki bat (%0,6) lortu zuelako diru bilketan. Tasa horretan, eragin positiboa izan zuten atzerapenetatik etorritako sarreraren igoerak eta kontroleko hainbat jarduerak. Halaber, onartu ziren neurri fiskal jakin batzuek ere, hala nola jaiotzearengatik kenketa desagertu izana, lagundu zuten. Aitzitik, langabeziaren gorakadarengatik soldaten ordainketak izan duen narriadurak eragin negatiboa izan zuen zerga horren diru bilketan.

Multzo horretako beste zerga handiak, hots, sozietateen zergak, suspertu gabe jarraitu zuen eta %5,2ko urte arteko jaitsiera jaso zuen, bigarren ordainketa zatikatuaren oinarri zergapegarria zabaltzea ahalbidetu zuten hainbat arau aldaketa onartu ziren arren eta zergaren tipoak igo ziren arren.


Bitartean, zeharkako zergen diru bilketak balio negatibotan jarraitu zuen, BEZaren bilakaerak (%-15,1) biziki kaltetuta. Horiek horrela, eta urteko hirugarren hiruhilekoari dagozkion enpresen ordainketak kontabilizatuta daudenean, zerga horrek ezin izan zuen diru bilketa hobetu, irailaren 1ean tipoak igotzeko erabakia indarrean sartu zen arren. Beraz, pisu handiagoa izan zuten kontsumo pribatuaren beherakadak eta etxebizitzaren erosketen jaitsierak tipoen igoerak baino.

Azkenik, zerga bereziek ere balio negatiboak aurkeztu zituzten osagai guztietan, salbuespena tabakoaren (%14,1) eta argindarraren (%1,4) gaineko zergak direlarik. Bi kasuetan, gehikuntzaren arrazoiak zergaren tipoak eta prezioak igo izana da, kontsumoaren jaitsiera alde handiz konpentsatu zutelako. Beste aldetik, hidrokarburoen gaineko diru bilketan gertatu zen beherakada garrantzitsua izan zen (%-4,4) eta erosketak aurreratu izanak azaldu dezake, neurri batean, bilakaera hori.

Finantza arloa

Finantza merkatuak, oraindik gorabehera handiak pairatzen dituen arren, hobekuntza garbia ezagutu zuen hirugarren hiruhilabeteko amaieran, batez ere banku zentralak, bai herrialde garatuetan bai azaleratzen ari direnetan, aparteko neurriak ezarri zituztelako. Hori horrela izanda, erabaki horiei esker arrisku sariak gutxitu ziren, euroak balioa irabazi zuen eta burtsek goranzko joera erakutsi zuten.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehuneakoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Aipatu berri denez, Eurogunean kalte handiak eragin zituzten azken finantza desoreken ondoren, Europako Banku Zentralak zailtasunak zituzten herrialdeen zor subiranoa erosiko zuela iragarri zuen. Horretarako, erosketa programa berri bat erabiliko zuen bigarren merkatuan, Salerosketako Moneta Eragiketak (OMT, ingeleseko siglan) izeneko. Programa horrek aktiboak erosteko aurreko programa ordezkatu du eta beraren helburua moneta politikaren transmisio egokia eta beraren batasuna zaintzea da. Horretaz gain, eta urrian egin zen Europar Kontseiluaren markoan, lehen urratsa eman zen banku batasunerantz, gainbegiratzeko mekanismo bakarra sortuz. EBZk beteko du paper hori.

Euroa babesteko behar zen guztia egingo zela iragarri izanak aurreko hilekoetan finantza merkatuetan bizi ziren tentsio gero eta kezagarriagoak zerbait baretzea ahalbidetu zuen eta, horren ondorioz, arrisku sariak gutxitu ziren. Izan ere, zor publikoko bigarren mailako merkatuetan herrialdeen arteko diferentzialen beheranzko joera eragin zuen. Espainiari dagokionez, bonuaren gainkostua gutxituz joan zen eta martxotik inoiz izan duen mailarik apalena lortu zuen. Beste aldetik, kreditu kaudimen handiena duten ekonomien, hots, Alemaniaren eta AEBen, kostuak goranzko mugimenduak ezagutu zituzten, baina beti oso maila apaletan kokatuta.


Ekonomiaren jarduera suspertzeko eta energiaren garestitzeak berriki eragin dituen presio inflaziogileen ondorioz zein ekonomiaren hazkundeaz dauden igurikimeneen ondorioz, Europako Banku Zentralak interes tasa ofizialak inoizko mailarik apalenean (%0,75) uztea erabaki zuen. Gainontzeko banku zentral handiek ere moneta politika hedakorrak ezarri zituzten. Esate baterako, AEBetan, Fed-ek %0aren eta %0,25aren artean utzi zuen erreferentziako tasa, 2015eko erdialdea arte luzatzeko asmoarekin. Halaber, aktiboak erosteko beste programa bat iragarri zuen, hipoteka titulizazioetan fokatuta. Erresuma Batuko interes tasek, berriz, %0,5ean jarraitu zuten, 2009ko martxotik indarrean dagoen maila baita. Azkenik, Japoniako Bankuak ere interes tasa ofiziala bere horretan uztea erabaki zuen, %0aren eta %0,1aren artean (2010eko urrian ezarri zuen urkila hori). Halaber, Fed-ek bezala, bi erakundeek aktiboak erosteko programa zabaldu zuten, ekonomia bultzatzeko neurri gisa.

Beste aldetik, moneta politikaren lasaitzea nagusi izan zen garapen bidean dauden herrialdeetako testuinguru ekonomikoan. Herrialde horietan jardueraren moteltzea espero zena baino biziagoa izan dela kontuan hartuta, pizgarri monetario eta fiskal gehiago beharrezkoak izan ziren. Horretarako, interes tasa ofizialak gutxitu zituzten eta beste neurri administratibo batzuk ere hartu zituzten. Izan ere, hasi dira lehen fruituak ematen eta herrialde horietako banku zentral batzuk interes tasen jaitsierei amaiera ematea pentsatzen ari dira, inflazioaren presioa saihesteko. Adibidez, Brasilen interes tasak %7,25ean utzi ziren, aurreko jaitsieraren ondoren.


Lan merkatuaren ahultasunak eta AEBetako moneta hedapen kuantitatiboaren programa berriak dolarraren balioa truke merkatuetan jaiste eragin zuten. Eurogunean, berriz, europar dirua laguntzeko aipatu diren faktoreek gorantz bultzatu zuten euroaren balioa. Erreserba Federalak iragarri zuen moneta laxotasunaren ondorioz, dolarraren balio galera ez zen euroaren aldean bakarrik gauzatu eta beste diru batzuen aldean ere gertatu zen. Salbuespena Japoniako yena izan zen, balioa galduz joan baitzen 2011ko udatik inoiz izan duen baliorik txikienean kokatu arte.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libra esterlina



Suitzako frankoa



Yena




Iturria: Espainiako Bankua.

Gainontzeko merkatuetan bezala, errenta aldakorraren bilakaera ere moneta aldaketa guztien isla izan zen. Hain zuzen ere, moneta baldintzak lasaitu izanak, inbertitzaileek arrisku gehiago hartzeko erakutsi duten nahiak, garapen bidean dauden herrialdeek bizi duten egonkortasunak eta Eurogunean banku batasunaz onartutako lehen akordioek abuztuko erdialdean burtsek lortu zituzten igoerei jarraipena ematea ahalbidetu zuten. Hala eta guztiz ere, oraindik ez zen sendotasunik hauteman erosketen igoeran. Are gutxiago IBEX-35eko kasuan, gorakada bizia lortu bazuen ere oraindik galerak pilatzen segitu zuelako.


Interes tasen bilakaera

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

Finantza arloko egonkortasun handiagoa banku arteko merkatuan ere hauteman zen. Beraietan, gordailuen interes tasek beheranzko joera markatua erakutsi zuten azken hilekoetan, inoizko mailarik txikienetan kokatu arte.

Arlo pribatuari emandako kredituak beheranzko joera erakusten jarraitu zuen, urte arteko aldakuntza tasa %-5,4an kokatuta, azken hiruhilekoetako balioaren oso azpitik baitago. Ekoizpen jarduerak finantzatzera bideratutako maileguek beste beherakada bat (%-14,7) jaso zuten, familiei emandako maileguena (%-1,1) baino handiagoa. Horrek baieztatzen du sektore pribatuaren zorrak gutxitzeko prozesuak aurrera egin zuela. Izan ere, lehen finantzazio motari dagokionez, jaitsieraren arrazoiak ekonomia jarduera orokorraz eta sektore edo sozietate jakin batzuez dauden igurikimenetan gertatu den narriadura eta funtsen eskaintzak onartzeko irizpideak gogortu izana dira.

Familiei emandako finantzazioak, berriz, murrizten jarraitu zuen hirugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, helburuaren arabera sailkapenean, beherakada biziagoa izan zen kontsumo ondasunak erostera bideratutako maileguetan (%-12,3), bizitegia erostera zuzendutako maileguekin (%-0,4) alderatuta. Azken honek, salneurriak jaitsi ziren arren, ezin izan zuen suspertu.

EAE-KO KREDITU PRIBATUEN SAILKAPENA ESKATUTAKO XEDEAREN ARABERA

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € 2012-II	Guztiarekiko chunekoa
	2011	2011	2012				
		IV	I	II	III		
Xedeak:							
Ekoizpen jarduera finantzatzea	-2,4	-3,7	-6,9	-8,9	-14,7	15.504.181	26,7
Eraikuntza	-7,6	-5,4	-13,2	-10,9	-16,3	2.732.475	4,7
Higiezin jarduerak	-5,2	-2,3	-10,8	-8,4	-20,4	5.618.455	9,7
Bestelakoak	2,9	-4,2	-0,4	-8,5	-8,8	7.153.251	12,3
Familien gastua finantzatzea	0,9	0,3	-0,2	-0,3	-1,1	42.209.499	72,6
Etxebizitza erostea	1,5	1,1	0,5	0,4	-0,4	37.815.502	65,0
Kontsumo iraunk. ond. erostea	-15,1	-6,8	-13,6	-12,4	-12,3	723.537	1,2
Familien beste gastuak	-1,4	-5,6	-4,0	-4,2	-5,7	3.670.460	6,3
Bestelakoak	-58,2	-63,2	-26,5	3,8	-27,1	437.524	0,8
GUZTIRA	-1,4	-2,3	-2,5	-2,8	-5,4	58.151.204	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EAEko banku, kutxa eta kooperatiben datuetan oinarrituta.

Azkenik, gordailu pribatuak EAEn, urteko bigarren hiruhilekoaren aldean hobetu ziren arren, berriro gutxitu ziren (%-6,9). Jaitsierak aktibo guztiei eragin zien, salbuespena aurrezki gordailuak direlarik, balio positiboak berreskuratu zituztelako. Horiek horrela, EAEko biztanleriak likideziaren aldeko hautua leundu duela hautematen da, bigarren hiruhilekoa baita ageriko gordailuak murriztu direla (%-7,6), aurreko epealdietan gehikuntzak lortzen zituen aktibo bakarra zirenean.

EAE-KO GORDAILU PRIBATUEN SAILKAPENA

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € 2012-II	Guztiarekiko ehunekoa
	2011	2011	2012				
		III	I	II	III		
Kreditu kooperatibak	0,8	0,8	-0,1	-2,1	-3,1	12.453.140	18,3
Banku eta kutxak	-2,8	-2,8	-7,9	-9,0	-7,7	55.620.836	81,7
Ageriko gordailuak	16,9	16,9	6,1	-8,2	-7,6	12.776.801	18,8
Aurrezki gordailuak	-15,2	-15,2	-19,5	-0,7	1,1	12.299.487	18,1
Eperako gordailuak	-4,5	-4,5	-7,9	-12,4	-10,9	30.544.548	44,9
GUZTIRA	-2,2	-2,2	-6,6	-7,8	-6,9	68.073.976	100,0

Iturria: Espainiako Bankua.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Aurten, munduko ekonomiaren hazkundera zalantzatia izango da eta tamaina ezberdinekoa eremuaren arabera. Ekonomia aurreratuen hazkundera apala izango da epe laburrean, batez ere Eurogunearen atzeraldiak 2013ko lehen seihilekoan emaitza lastatuko duelako. Horretaz gain, lan merkatuaren egoerak, dagoeneko oso narriatuta dagoen arren, okerrera egingo du. Jarduera galgatuko duten faktoreak administrazioen aurrekontuetako murrizketak, arlo pribatuaren zorpegabetzea eta ekonomia eragileen konfiantza eza dira. Bitartean, garapen bidean dauden herrialdeek hazkunde erritmo garrantzitsuak lortuko dituzte berriro. Consensus Forecastek %2,5eko hazkunde tasa estimatu du munduko ekonomiarentzat 2012. urtean, eta %2,6, berriz, 2013. urtean.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumo prezioen indizeak		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Munduko ekonomia	3,1	2,5	2,6	3,8	3,0	2,9
AEB	1,8	2,2	1,9	3,1	2,1	2,0
Kanada	2,6	2,0	1,8	2,9	1,6	1,8
Japonia	-0,5	1,8	0,6	-0,3	0,0	-0,2
Eurogunea	1,5	-0,5	-0,1	2,7	2,5	1,9
Europar Batasuna	1,6	-0,3	0,2	2,9	2,5	2,0
Alemania	3,0	0,8	0,7	2,3	2,0	1,9
Espainia	0,4	-1,4	-1,6	3,2	2,5	2,3
Frantzia	1,7	0,1	0,1	2,1	2,0	1,6
Herbehereak	1,1	-0,9	-0,2	2,3	2,5	2,3
Italia	0,6	-2,2	-0,9	2,8	3,1	2,0
Erresuma Batua	0,9	-0,1	1,1	4,5	2,8	2,5
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,7	4,6	3,7	2,5	2,7
Ekialdeko Europa	4,8	2,6	3,0	6,3	6,5	5,6
Amerika Latinoa	4,2	2,9	3,7	7,1	5,9	6,4


Iturria: Consensus Forecast (2012ko abendua).

AEBe beste ekonomia aurreratu batzuek baino hobeto egingo die aurre oraingo atzeraldi globalari. Herrialde horretako hazkundea %2,2 izango dela 2012an estimatu da eta %2,0aren inguruan kokatuko dela 2013an, baina azken aurreikuspenak gorantz zuzentzen ari dira. Kontsumitzaileen aberastasun garbiaren hazkundeak, finantzaziorako baldintzen hobekuntzak, interes tasa apalek eta kreditua lortzeko baldintzen malgutasunak eskari globala lagunduko dute. Hala ere, AEBetako aurrekontuaren arazoa, doikuntza fiskal handia egiteko arriskua eta Eurogunearen ahultasunak finantza merkatuetan utzi ditzakeen ondorioak dira aurrekontu hauen arrisku behinenak.

BPGaren bilakaera eremuka


Urte arteko aldakuntza tasak

Eurogunea




2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

AEB




2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

Japonia



2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

Txina




2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013

Iturria: NDF. 2012ko azaroko aurreikuspenak.


Japonian, Consensus Forecasten arabera, hazkunde tasa %1,8 izango da 2012an eta hurrengo urtean erritmoa motelduko da %0,6an kokatu arte, urte arteko aldakuntza tasan. 2011ko hondamendi naturalaren kalteak berreraikitzeke eman zen bultzada leunduz joango da urratsez urrats. Berreraikitzerako gastuak gutxituko dira eta zergak, berriz, igoko, kontsumo pribatua galgatuz. Horretaz gain, energiaren etorkizuneko hornidurak Japoniako hazkunde ekonomikoa baldintzatu dezake. Izan ere, herrialdean dauden 50 erreaktore nuklearretatik, 48 erabili gabe daude gaur egun. Kanpo arloari dagokionez, arrisku nagusiak Europatik eta Txinatik datoz, azken hau Japoniako merkataritzako bazkide nagusia baita.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Txinako hazkunde 2012. urtean %7,5 izan dela estimatu da. Tasa hori, oraindik garrantzitsua izan arren, azken hamar urteko txikiena izango zen. 2013. urterako, aurreikuspena %8,5ean kokatu da. Barne osagaiei dagokienez, gobernu zentralak azpiegituretan egingo duen gastu handiagoak herrialdearen hazkunde suspertuko du. Egoitzen eraikuntzaren eskari handiak, kreditu erabilgarria gehiago izatea eta interes tasa apalek barne eskaria modu esanguratsuan haztea eragingo dute. Kanpo arloan, esportazioen gorakada ez da oso handia izango, nazioarteko adierazleak ahul daudelako, baina munduko ekonomia suspertuko den heinean hobetuko dira. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren egoerak bat-batean okerrera egingo balu, Txinak badauka ahalmenik moneta eta aurrekontu pizgarriak ezartzeko.

Indiako hazkundera epe laburrean neurritsua izango da. ELGEren aurreikuspenen arabera, %4,4 haziko da 2012. urtean eta %6,5, berriz, 2013an. Nekazaritzako ekoizpenaren normalizazioak, espero zena baino montzoi onberago baten ondoren, hazkundera bultzatuko du 2012ko azken hilekoetan eta 2013ko lehenengoetan. Inbertsioak ere bilakaera positiboa erakutsiko du, moneta politika laxatuagoari esker, inflazioaren apaltzeak lagunduta. Kanpo eskariak hobera egingo du Indiako esportazioen helburua diren herrialdeen ekonomiak hazten diren heinean. Arrisku nagusia barneko politika ekonomikotik iritsiko da eta, zehazkiago, gastu publikoaren kudeaketatik.

Eurogunean hartu diren neurriek epe laburreko presioak leuntzea lortu dute. Eremu horrek gaur egun bizi duen atzeraldiak 2013ko lehen hilekoak arte jarraituko du. 2012. urtean, hazkundera %0,5 jaitsiko dela espero da eta susperraldi txiki bati ekingo dio, 2013an batez besteko aldakuntza tasa %-0,1ean kokatuz. Zalantzarik gabe, diru batasuneko herrialdeen egoera mehatxu handia da munduko ekonomiarentzat eta beraien ekonomiaren bilakaera arretaz segitzen da mundu osoan.

Aurrekontuetan ezarri diren murrizketek jardura galgatu dute eta barne eskariak berriro egingo du behera. 2013. urtean, susperraldia astiro gauzatuko da, eskari pribatu ahul dagoelako eta gastu publikoaren gaineko murrizketek bere horretan jarraituko dutelako. Berpiztearen abiadura finantzaziorako baldintzen hobekuntzak eta familien kontsumoaren zein enpresen inbertsioaren bizitasunak zehaztuko dute. BPGaren hazkunde apaleko eta inflazio tentsiorik gabeko testuinguru horretan, EBZk interes tasak epe laburrean eta ertainean maila apaletan utziko dituela aurreikusten da.

Euroguneko atzeraldiak gehien kaltetu dituen herrialdeetako bat Espainia da. 2012an eta 2013an ekonomiak narriadura areagotuko duela aurreikusten da, gero, 2014an, neurritsu hazi baino lehen. Hain zuzen ere, hainbat erakundetako aurreikuspenek %-1,5aren inguruan kokatzen dute urte arteko hazkundera 2012-2013 epealdirako. Urte horietan nabariak izango dira aurrekontuetako murrizketak, merkataritzako bazkideen eskaria ahula eta egoera finantzario zaila. Testuinguru horretan, soldaten tentsioak baretu dira eta horrek lehiakortasunaren hobekuntza ekarriko du, nazioarteko merkatuetan abantaila bat lortzea ahalbidetuz.

Hala ere, aurreikuspen horietan ziurgabetasun asko daude. Alde batetik, eta alderdi negatiboan, Europako beste herrialde batean izan daitekeen edozein gertakarik maileguen garestitzea ekarriko lieke Estatuari eta bankuei, baita Espainiako esportazioen okertzea ere. Horrek Espainiako aurrekontuaren defizita handituko luke eta atzeraldia areagotuko luke. Alde positiboan, Europan banku batasuna sortzeak eta finantza erakundeak Europako funtsekin

zuzenean berriro kapitalizatzeak ekonomiaren suspertze arinagoa ekarriko luke, kreditua emeki-emeki ugarituz.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoen eta bestean	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-1,7	-2,0	-2,2	-2,5	-5,1	-9,0	-5,1	-9,6	-11,3	-5,2	-7,8	-3,4
BBVA	-1,4	-1,4	-2,0	-2,9	-3,6	-6,9	-9,7	-7,5	-11,8	-10,0	-7,7	-3,8
Bankia	-1,4	-1,5	-2,0	-2,4	-4,1	-5,9	-8,9	-4,2	-11,3	-5,5	-6,3	-3,1
CatalunyaCaixa	-1,4	-1,4	-1,9	-3,8	-4,4	-8,2	-9,0	-5,3	-12,8	-10,6	-6,1	2,8
Cemex	-1,3	-1,6	-1,8	-2,7	-4,2	-4,0	-8,9	-6,9	-11,8	-11,2	-6,1	-3,0
CEEM-URJC	-1,4	-1,4	-1,9	-2,4	-4,2	-7,0	-9,2	-5,7	-10,3	-7,1	-7,5	-3,3
CEPREDE-UAM	-1,6	-1,2	-1,8	-1,2	-4,2	-7,7	-8,8	-5,8	-11,1	-6,1	-6,9	-1,5
CEOE	-1,3	-1,3	-1,8	-2,1	-4,2	-6,0	-9,0	-6,8	-11,5	-9,8	-6,2	-1,6
ESADE	-1,5	-1,0	-1,0	-1,0	-6,9	-4,5	-1,3	-0,9	---	---	---	---
FUNCAS	-1,4	-1,6	-1,8	-3,3	-4,0	-4,9	-9,0	-7,9	-11,6	-11,1	-6,0	-3,4
ICAE-UCM	-1,5	-1,4	-1,8	-2,3	-4,7	-6,2	-9,3	-5,9	-11,1	-7,5	-6,8	-3,5
IEE	-1,5	-1,5	-1,8	-2,5	-4,2	-4,5	-7,1	-5,1	-11,8	-9,0	-4,6	-3,0
CJC unibertsitatea	-1,4	-1,3	-1,9	-2,1	-4,0	-5,1	-9,2	-4,2	-11,5	-6,2	-6,6	-0,8
IFL-UC3M	-1,3	-1,3	-1,7	-1,1	-4,1	-7,4	-8,7	-6,8	-11,3	-9,2	-5,9	-4,2
Intermoney	-1,3	-2,0	-1,8	-3,7	-4,0	-5,2	-9,1	-11,3	-11,6	-10,8	-4,5	-12,0
La Caixa	-1,4	-1,5	-1,8	-1,7	-4,3	-9,2	-8,9	-4,8	-11,4	-6,6	-6,1	-1,7
Repsol	-1,4	-1,5	-1,9	-2,5	-3,8	-5,6	-8,7	-3,2	-11,4	-5,7	-5,9	0,6
Santander	-1,5	-1,4	-2,0	-1,7	-4,0	-7,0	-9,1	-6,5	-11,2	-7,8	-6,2	-4,2
Solchaga Recio	-1,4	-1,8	-1,8	-2,5	-4,3	-7,5	-8,8	-8,1	-11,5	-10,8	-6,0	-5,5
Batez bestea	-1,4	-1,5	-1,8	-2,3	-4,3	-6,4	-8,3	-6,1	-11,5	-8,4	-6,3	-3,0
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-09)	-1,5	-0,5	-1,5	-1,4	-4,8	-8,2	-9,9	-2,1	---	---	---	---
Esp. Bankua (2012-01)	-1,5	0,2	-1,2	-0,5	-6,3	-3,3	-9,2	-2,2	-10,6	-3,1	-7,0	-0,9
E. Batzor. (2012-11)	-1,4	-1,4	-1,9	-2,1	-4,9	-7,2	-9,0	-5,6	-11,3	-7,3	-6,6	-3,5
NDF (2012-10)	-1,5	-1,3	-2,2	-2,4	-4,1	-5,4	-8,9	-4,1	---	---	---	---
ELGE (2012-11)	-1,3	-1,4	-1,9	-2,3	-4,1	-4,0	-9,1	-9,0	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-4,3	-4,3	1,7	5,6	-6,8	-1,6	2,4	2,3	-4,5	-2,4	25,1	26,7
BBVA	-4,0	-4,7	3,8	8,2	-4,7	-1,8	2,5	2,3	-4,2	-3,2	25,0	26,1
Bankia	-3,9	-3,5	3,2	3,6	-5,7	-2,7	2,4	2,0	-4,3	-3,1	25,0	26,4
CatalunyaCaixa	-3,8	-3,9	3,7	6,4	-4,5	-3,4	2,4	2,8	-4,4	-2,6	25,0	26,6
Cemex	-3,9	-3,8	2,9	3,6	-5,0	-2,8	2,5	2,3	-4,5	-3,0	25,0	25,5
CEEM-URJC	-3,9	-3,9	3,4	5,5	-4,8	-2,3	2,5	2,2	-4,0	-1,8	24,8	25,8
CEPREDE-UAM	-3,8	-3,4	3,5	4,0	-4,4	-2,2	2,4	2,4	-4,2	-2,1	24,8	26,2
CEOE	-3,8	-3,9	3,5	4,7	-4,6	-3,4	2,5	1,9	-4,3	-2,7	25,0	26,3
ESADE	-2,2	-1,7	4,0	3,0	1,0	-1,0	1,7	2,5	-3,0	-2,5	24,0	24,5
FUNCAS	-3,8	-4,5	3,2	4,5	-4,7	-4,6	2,4	1,9	-4,3	-3,2	25,1	27,3
ICAE-UCM	-4,0	-4,0	3,2	4,7	-5,2	-2,6	2,4	2,3	-4,0	-2,7	24,8	26,2
IEE	-3,7	-3,8	3,0	4,5	-5,0	-4,0	2,4	2,2	-4,2	-3,1	25,0	26,5
CJC unibertsitatea	-3,9	-3,2	3,5	4,6	-4,8	-2,3	2,5	2,5	-3,9	-3,3	25,1	27,3
IFL-UC3M	---	---	3,4	5,2	-4,3	-2,0	2,5	2,4	---	---	25,0	27,0
Intermoney	-3,8	-5,4	3,0	-2,2	-4,9	-13,1	2,4	1,1	-4,4	-4,2	25,1	28,1
La Caixa	-3,8	-3,8	4,0	9,3	-3,7	2,2	2,5	2,4	-4,4	-3,2	24,9	26,3
Repsol	-3,7	-3,3	4,0	6,5	-4,1	-0,3	2,5	2,2	-4,2	-3,1	24,9	26,6
Santander	-3,9	-3,7	2,9	3,8	-5,6	-4,0	2,4	1,9	-4,5	-2,7	25,0	26,7
Solchaga Recio	-3,9	-4,7	3,5	4,4	-4,4	-4,5	2,4	1,9	-4,4	-3,5	25,1	27,5
Batez bestea	-3,8	-3,9	3,3	4,7	-4,5	-3,0	2,4	2,2	-4,2	-2,9	24,9	26,5
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-09)	-4,0	-2,9	1,6	6,0	-6,7	-1,5	---	---	-3,7	-0,2	24,6	24,3
Esp. Banku (2012-01)	---	---	3,5	5,9	-4,8	1,2	1,5	1,2	-3,0	-0,7	23,4	23,3
E. Batzor. (2012-11)	-4,0	-3,8	2,1	4,2	-6,3	-3,2	2,5	2,1	-4,5	-2,7	25,1	26,6
NDF (2012-10)	-4,0	-3,3	2,4	3,5	-5,7	-2,8	2,4	2,4	-4,4	-0,1	24,9	25,1
ELGE (2012-11)	-3,9	-4,0	4,0	6,4	-4,5	-1,3	2,2	1,2	---	---	25,0	26,9

Iturria: Funcas.

Enpleguaren galerak aurrera jarraituko du eta langabezia tasak %26,0 gainditu dezake 2013. urtean. Prezioei dagokienez, BEZaren igoeraren ondorioz salneurrien mailak goranzko joera arin bat erakutsi ondoren, inflazioa motel ibiliko dela aurreikusten da.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2012ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	12.III	12.IV	2012	13.I	13.II	13.III	13.IV	2013
BPG	-2,0	-2,6	-1,6	-3,1	-2,1	-0,7	1,1	-1,2
Kontsumo pribatua	-2,1	-2,3	-2,0	-2,6	-1,6	-1,1	0,0	-1,3
Kontsumo publikoa	-5,2	-8,1	-4,9	-10,0	-10,5	-7,4	-4,0	-8,1
Kap. finkoaren eraketa gordina	-10,6	-9,5	-9,3	-7,9	-5,9	-3,3	0,0	-4,3
- Inbertsioa ekipamenduan	-9,9	-6,0	-7,2	-4,3	-3,3	-0,9	1,6	-1,7
- Inbertsioa landutako aktib.	-13,2	1,2	-2,7	3,7	4,2	3,8	2,5	3,5
- Inbertsioa eraikuntzan	-12,3	-12,4	-11,4	-10,8	-8,1	-5,2	-1,3	-6,5
Barne eskaria	-4,9	-5,3	-4,3	-5,7	-4,8	-2,9	-0,9	-3,6
Esportazioak	2,2	2,5	2,7	3,4	4,0	4,3	4,9	4,2
Inportazioak	-6,4	-5,4	-5,8	-4,0	-3,1	-1,8	-0,6	-2,4

Iturria: CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2012 eta 2013 urteetarako ekonomia hazkundearen aurreikuspenak eguneratu ditu. Hain zuzen ere, 2012rako batez besteko gehikuntza tasa zertxobait igo da eta %-1,1ean kokatu da. 2013an, ordea, zuzenketa beherantz egin da eta ekonomiak %-1,1ko jaitsiera izango duela aurreikusten da, aurreko hiruhilekoan espero zena baino hiru hamarren beherago. Hiruhilekoen bilakaerak okertzea iradokitzen du 2012ko laugarren hiruhilekoan eta 2013ko lehen hilekoetan. Une horretan gauzatuko da norabide aldaketa eta susperraldia hasiko da, apala eta astiro. Denbora horretan ez da urte arteko tasa positiborik jasoko.

Barne eskariak ahultasun handia erakusten jarraituko du eta geldotasunak kontuan hartu den epealdi osoan zehar iraungo du. 2013ko bigarren seihilekoan susperraldi zalantzati bat hasiko da, baina EAEko barne produktu gordinari ekarpen negatiboa egingo dio oraindik. Kanpo eskariak aurkeztuko du bizitasun handiena eta hazkundeari ekarpen positiboa egingo diona.

Nazioarteko susperraldi ekonomikoak EAEko ekoizkinen salmenta areagotuko du kanpo merkatuetan.

Eskariaren ikuspegitik, osagai guztiek zeinu negatiboa erakutsiko dute urte arteko aldakuntza tasetan. Familien gastua kontsumoan oso nabarmen okertuko da datozen hilekoetan. BEZak irailean izan zuen igoerak kontsumitzeko erabaki batzuk aurreratzea eragin zuen eta hori nabaritutako da 2012ko azken hiruhilekoko datuetan. Epe laburrean, gastu pribatuaren joerak hobekuntza arin batera egingo du, baina balio positiboak berreskuratu gabe. Urteko batez bestean, beherakada %0,9 izango da 2012. urtean eta %1,1, berriz, hurrengo urtean. Administrazio publikoek ere beren gastua murriztuko dute aurrezkia areagotzeko eta defiziteko helburuak bete ahal izateko. Kontsumo publikoa %-2,0aren inguruan ibiliko da, batez beste, aurreikuspen honetan kontuan hartu den epealdi osoan. Azkenik, kapitaleko eraketa gordinak suspertze arineko norabidea erakutsiko du eta 2012an %4,3 jaitsiko bada ere, 2013an %3,3ra mugatuko du beherakada. Inguruneke herrialdeetako ekonomien bizkortzea eta kreditu baldintzen malgutasun handiagoa daude bilakaera horren oinarrian.


EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2012ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak	2012.IV	2012	2013.I	2013.II	2013.III	2013.IV	2013
BPG	-1,6	-1,1	-1,6	-1,4	-1,0	-0,3	-1,1
Azken kontsumoa	-1,9	-1,2	-1,8	-1,4	-1,3	-0,6	-1,3
Kontsumo pribatua	-1,5	-0,9	-1,5	-1,2	-1,1	-0,5	-1,1
Kontsumo publikoa	-3,3	-2,1	-2,8	-2,1	-1,8	-1,0	-1,9
Kapital eraketa gordina	-4,2	-4,3	-3,9	-3,7	-3,3	-2,3	-3,3
Barne eskariaren ekarpena	-2,5	-1,9	-2,4	-2,0	-1,8	-1,1	-1,8
Kanpo saldoaren ekarpena	0,8	0,9	0,8	0,6	0,8	0,8	0,7
Lehen arloa	3,9	10,3	-13,2	-14,0	-17,2	19,2	-6,3
Industria	-3,0	-2,3	-2,8	-2,6	-1,4	-0,5	-1,8
Eraikuntza	-5,5	-5,8	-5,2	-4,9	-4,0	-3,5	-4,4
Zerbitzuak	-0,8	-0,3	-0,7	-0,6	-0,4	0,0	-0,4
Balio erantsi gordina	-1,8	-1,2	-1,8	-1,5	-1,0	-0,3	-1,1
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-0,7	-0,1	-0,7	-0,6	-0,4	0,0	-0,4
BPGren deflatoarea	1,1	1,1	1,2	1,4	1,8	2,1	1,6
Enplegua	-2,9	-2,4	-2,8	-2,2	-1,9	-1,0	-2,0
Langabezia tasa	12,0	12,0	12,3	12,6	12,9	12,9	12,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren aldetik, balio erantsi gordinak nabarmen egingo du behera 2013ko lehen hiruhilekoa arte eta une horretatik aurrera narriadura leuntzen hasiko da. Hala eta guztiz ere, 2012an eta 2013an ez da tasa positiborik jasoko hazkunderan. Susperraldia ahula izango da eta astiro gauzatuko da. Industria, puntu baxuena 2012ko azken hilekoetan markatu ondoren, susperraldi zalantziaren norabidean kokatuko da, munduko hazkundera handituko delako eta barneko atzeraldia leunduko delako. Urteko batez bestean, industria jardueraren aldakuntza tasa %-2,3an kokatuko da 2012an eta %-1,8an, berriz, 2013an. Aurreko hiruhilekoetan bezala, eraikuntzak markatuko du emaitza txarrenak hazkunderan eta, suspertze txikia ezagutuko duen arren, tasak negatiboak izango dira eta oso altuak balio absolutuetan. Hain zuzen ere, sektore horren narriadura %5,8an eta %4,4an kokatzen da, hurrenez hurren, 2012rako eta 2013rako. Eraikuntzaren doikuntzak bere horretan dagoela ematen du eta debora luzea beharko duela frogatzen du. Dena dela, jaitsiera gutxituko dela hasi da hautematen ekonomia perspektibetan. Zerbitzuen arloak %-0,4aren inguruko hazkunde egonkorra erakutsiko du epealdi osoan zehar. Portaera txarrena merkaturatzen ez diren zerbitzuetan gauzatuko da.

EAEko BPGaren eta enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Lan merkatuaren aurreikuspenak ere gaurkotu dira. 2012. urterako, enpleguaren perspektibek aurreko eszenategikoak bezalakoak dira eta urteko batez bestean %2,4 jaitsiko da. 2013. urtean, beherakada %2,0ra iritsiko da. Tasa horiek adierazten dute 23.000 eta 19.000 lanpostu inguru galduko direla, hurrenez hurren, 2012an eta 2013an. Langabezia tasa %12,0an kokatuko da 2012an eta %12,7ra igoko da 2013an.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2012 eta 2013 urteetarako aurkeztu duen EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa hainbat hipotesitan oinarritzen da nazioarteko testuinguru ekonomikoaz, euroaren eta dolarraren arteko truke tasaz eta Europako moneta agintaritzak ezarriko dituen interes tasez.

Euroguneko ekonomiak gaur eta etorkizunean erakutsiko duen ahultasunaren aurrean, oso litekeena da Europako Banku Zentralak interes tasak denbora luzez oraingo maila txiki historikoetan uztea.

Euroaren eta dolarraren arteko truke tasaz, Euroguneko krisiak iraungo duen bitartean euroak estatubatuar diruaren aldean balioa galduko duela estimatu da. Izan ere, 2013an euroak gutxiago balioko duela aurreikusten da, Europako ekonomiaren egoera zailarengatik eta Euroguneko etorkizunaz dagoen ziurgabetasunarengatik.